



1/2022 Zirkularra, abenduaren 12koa, uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoaren arabera egindako ebasketa-delituaren erreformari buruzkoa.

Aurkibidea: 1. Aldez aurretiko gogoetak. 2. Lege-aurrekariak. 3. Uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak txertaturiko ebasketa-delituaren modalitate berri astundua. 4. Gai espezifikoak. 4.1 Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiko modalitate astunduaren eta Zigor Kodearen 235.1.7 artikuluko modalitate hiperastunduaren arteko harremana. 4.2 Delitu jarraituaren figurarekin batera agertzea. 4.3 Egiletzari eta parte-hartzeari buruzko gogoetak. 4.4 Araubide iragankorrekarekin loturiko gaiak. 4.5 Jarduteko irizpideak. 5. Ondorioak

1. Aldez aurretiko gogoetak

Uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak (*arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko edo epaitzeko finantza-informazioa eta bestelako informazioa erabiltzea errazten duten arauak ezartzen dituen, autonomia-erkidegoak finantzatzeari buruzko irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoa eta horrekin lotutako beste xedapen batzuk aldatzen dituen eta Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena*) ebasketa-delituaren aldaketa garrantzitsu bati ekin dio, eta, ildo horretan, beste azpitipo astundu bat txertatu du, zeina indarrean baitago abuztuaren 29tik.

Lege organiko horren azken xedapenetako seigarrenean zehazten denaren arabera, honela geratzen da idatzita Zigor Kodearen 234. artikulua:

2. Ostutakoaren zenbatekoa 400 eurokoa baino gehiagokoa ez bada, hilabetetik hiru hilabete arteko isun-zigorra ezarriko zaio, 235. artikuluko inguruabarraren bat gertatzean salbu. Hala ere, errudunak betearazi beharreko kondena jaso badu titulu honetan bildutako gutxienez hiru delituren ondorioz, baldin eta delituok izaera berekoak badira eta arau-hausteen zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa bada,



artikulu honetako 1. apartatuko zigorra ezarriko da. Ez dira kontuan hartuko ezereztu diren edo ezereztu beharko liratekeen aurrekariak.

Legearen hitzaurrean adierazten denez, ebasketa-delituaren erreformak «erantzun egokia eman nahi die berrerortze anizkuneko kasuei». Hartara, legegileak irtenbidea eman nahi dio arazo horri, Auzitegi Gorenaren Bigarren Salak Zigor Kodeko 235.1.7 artikuluko ebasketaren azpitipo hiperastunduari buruz ezarritako doktrinaren ondotik. Hitzaurrean jasota dagoenaren arabera, «erregulazio horrek, Auzitegi Gorenak egindako interpretazioaren arabera, esan nahi du ebasketa-delitu arinetan berrerorle anizkuna izateak ez duela jasotzen behar adinako erantzun penala, nahiz eta delitu horiek gero eta kezka handiagoa sortzen duten; izan ere, zuzenean eragin dezakete turismoan, merkataritzan eta, oro har, ekonomian ez ezik, herritarren segurtasunean bertan ere. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da Zigor Kodearen 234.2 artikulua aldatzea, 400 eurotik beherako ebasketa arinen kasuak modu astunagoan zehatu ahal izateko, berrerortze anizkunaren kasuetan». Azken buruan, legegilea indarkeriarik gabeko ondare-delinkuentzia txikiari aurre egiten saiatzen da, ohikotasunez, eta, bereziki, izaera profesionalekoari.

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2020ko Memorian ere aipatu zen gai horri buruzko erregulazio berri baten beharra. Memoria hartan adierazi zenez, «zentzuzkoa izango litzateke legegileak ebasketa-delituaren egungo erregulazioaren erreformari ekitea, delitu arinetan berrerortze anizkunak egiteko fenomenoari erantzuna emango dien tratamendu berri bat eskaintzeko. Egia esan, eginkizun konplexua da, tradizionalki berrerortze anizkunaren tratamenduari loturiko arazo dogmatikoak eta axiologikoak ikusita. Izan ere, erakargarriak izan badaitezke ere delitugile berrerorle anizkuna espetxeratzearen bidez kalte egiteko arriskurik gabe uztearekin loturiko gogoeta funtzionalistak, beti azpimarratu behar da zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko bateko zuzenbide penalak



aldendu egin behar duela oinarrizko printzipioak zalantzan jartzen dituzten planteamenduetatik, hala nola erruduntasuna edo egintza propioen erantzukizun pertsonala. Beraz, debekatuta geratzen dira *etsaiaren zuzenbide penalaren* tesietatik hurbileko soluzioetara eramaten duten planteamendu dogmatikoak [...]. Hori dela eta, gomendagarria da ebasketa-delituaren egungo erregulazioa errotik berrikustea. Izan ere, esparru horretan behar da oreka egoki bat, beste inon baino gehiago, bi auzion artean: alde batetik, berrerortze anizkunaren fenomenoak geldiarazteko neurri erabilgarri eta funtzionalak, eta, bestetik, neurrien legitimitate axiologikoa, betiere dogma- eta konstituzio-parametroek diotenari jarraikiz».

Uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak egindako erreformak, seguruenik, berriro irekiko du politika kriminalari buruzko eztabaida —inoiz erabat itxi ez dena—, eta, zehazkiago, zuzenbide penalak ohiko ondare-delinkuentzia txikiari emandako erantzunari buruzkoa. Alde batetik, masibotzat jotzen duten fenomeno baten aurrean zigor-erantzun ereduak emateko beharra defendatzen dutenak, kalte ekonomiko handiak eragin ditzaketen heinean tokian-tokian, autonomia-erkidegoetan eta estatu osoan, bai eta herritarren artean segurtasunik ezaren sententzia nabarmena eragin ere. Beste batzuek, berriz, salatzen dute berrerortze anizkunaren kasuen kontrako neurri mota horrek talka egiten duela konstituzio-balio garrantzitsuenekin, eta egile-zuzenbide penal tamalgarri batera eramaten gaituela.

Erreformak merezi dezakeen balorazioaren kalte gabe, indarrean jartzen den unetik bertatik izango duen garrantzi handiak komenigarri egiten du zenbait orientabide ematea manu berriak planteatzen dituen interpretazio-zailtasun nagusiak argitzeko, betiere Fiskaltzaren jardura-batasuna sustatzen laguntzeko.



2. Lege-aurrekariak

Ez da gaurko kontua legegileak ondare-delinkuentzia arinarekin loturik duen kezka (izan delinkuentzia hori ohikoa edo profesionala). 1995eko Zigor Kodea onetsi zenetik, hainbat lege-erreforma egin dira delitu-fenomeno horri erantzuteko, eta, oro har, modu astunduak ezarri dira, pixkanaka-pixkanaka zigorroztasun handiagoa zehaztuz.

Herritarren segurtasunaren, etxeko indarkeriaren eta atzerritarrak gizarteratzearen inguruan neurri zehatzak ezartzen dituen irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoak txertaturiko ebasketa-delituaren erreformaren bidez, legegilea saiatu zen erreplikatzeko ondare-delinkuentzia arinaren arloan berrerortze anizkunaren fenomenoak, eta delitu ez hain astunaren kategoriara igo zuen lau ebasketa-falta egitea (Zigor Kodearen 623.1 artikulua), betiere ebatsitakoaren guztizko balioa 300,50 eurotik gorakoa bada —zenbateko hori zen garai hartan oinarrizko ebasketa-tasarako aurreikusitakoa—. Delitu-modalitate berri hori ohiko delitu gisa eratu zen, eta oinarrizko ebasketa-tiporako aurreikusitako zigorra zegokion; hau da, sei hilabetetik hemezortzi hilabetera bitarteko espetxealdia.

Irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoaren zioen azalpenean adierazten zenez, «gizartearen errealitateak agerian utzi du ordenamendu juridiko penalak erantzun beharreko arazo nagusietako bat dela behin eta berriz jarduten duen delitugilearen delinkuentzia; alegia, delinkuentzia profesionalizatua».

Handik hilabete gutxi batzuetara, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen azaroaren 25eko 15/2003 Lege Organikoak ezabatu egin zuen Zigor Kodearen 234. artikulua, eta ezabatu egin zuen, horrekin batera,



lehen aipatutako azpitipo astundua. Hori horrela, ondorio gabe utzi zuen urte bereko irailaren 29ko erreforma. Legegileak zuzendu egin zuen oker hori, BOEn

2004ko martxoaren 16an argitaratutako akats-zuzenketa baten bidez, zeinaren bidez berriz txertatu baitzuen modalitate astundua.

Ebasketa-delituarekin loturiko berrerortze anizkunaren fenomenoak sortzen zuen kezka ondotik —eta neurri handi batean 2003ko erreformaren arrakasta eskasaren ondorioz—, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoak berridatzi egin zuen Zigor Kodeko 234. artikulua bigarren apartatua; hala, murriztu egin zuen falta astuntasun txikiagoko delitu bihurtzeko egin beharreko falten kopurua. Hala, ordura arte aintzat hartu beharreko lau falten orde, legegileak hiru baino ez zituen eskatzen, eta zigorra ezartzen zion «urtebeteko epean lau aldiz kode honen 623.1 artikuluan deskribatutako ekintza burutzen duenari, baldin eta arau-hausteen ondorioz pilatutako zenbatekoa aipatu delituaren gutxienekoa baino handiagoa bada».

Ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoak bigarren paragrafo bat gehitu zion Zigor Kodearen 623.1 artikuluari (ebasketa-falta) behin eta berriz ebasketa-faltak egiten direnean, une oroko lokalizazioko zigorra ezartzea aginduzkotzat jotzeko, betiere faltok Zigor Kodearen 234. artikuluan zehazterik izan ezean. Eta, azkenik, errepikapen hori hautemateko berariazko arau bat gehitu zuen: «Falta hori behin eta berriz egiten bada, une oroko lokalizazioko zigorra ezarriko da beti. Azken kasu horretan, epaileak epaian xedatu ahal izango du une oroko lokalizazioa larunbat, igande eta jaiegunetan betetzea zigortuaren bizilekutik hurbilen dagoen espetxean, 37.1 artikulua bigarren paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz. Errepikapena hautemateko, egindako arau-hausteen kopurua hartuko da kontuan, epaituak izan edo ez, bai eta horien denbora-hurbiltasuna ere».



Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 6ko 185/2014 Epaiak babesa eman zion erreforma horren konstituzionaltasunari, eta, Bartzelonako Probintzia Auzitegiko Seigarren Sekzioak planteatutako konstituziokontrotasun-azua aztertu eta gero, hauxe ondorioztatu zuen: «Legegileak zer

hautabidetara jotzen duen falta errepikatua definitzeko —epaitua izan ala ez— inguruabar kontingentearekin loturiko kontua da; hau da, aurreko arau-hausteak epaitu diren ala ez zehazteak [...] ez du sartzen errugabetasun-presuntzioarekin bateraezina den presuntziorik, ez baita aldatzen frogaren zama, eta ez baita mugatzen edo eragozten akusatua defentsa; aitzitik, arau-haustea egin zela frogatu beharra dago oraindik ere. Finean, manuak ez ditu aipatzen ustez egindako arau-hausteak, ezpada burutuak, eta bereizten ditu jada epaitutako kasuak eta epaitu gabekak, errepikaturiko falta hautematea ekar dezaketen bi *iter* prozesalei erreferentzia eginez. [...] Aldiz, “epaitu gabeko arau-hauste” esamoldeari dagokion manuaren interpretazioak eskatzen du delitu horiek falta errepikatua aplikatu nahi den prozesura ekartzea eta han egiaztatuta uztea. Eta interpretazio hori, errugabetasun-presuntziorako eskubideen eta egitatearen ondoriozko erantzukizunaren printzipioaren ikuspegitik, Konstituzioa errespetatzen duen exegesia eta Konstituzioaren jarraibide axiologikoetatik arrazoizko interpretazioa izateaz gain, zorrotz errespetatzen du manuaren hitzez hitzeko edukia, manu oro interpretatzeko lehen irizpide gisa eta zigor-hermeneutikaren esparruan gaindiezina den oztopo gisa (Konstituzio Auzitegiaren 129/2008 Epaia, 3. oinarri juridikoa). Ez da eusteko modukoa organo judizialak interpretazio adostua errefusatzea, ez baita arauaren literaltasunaren eta legegilearen borondatearen aurkako manuaren berreraikuntza».

Martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoak (Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena) aldaketa handiak egiten ditu ebasketa-delitua erregulatzeari dagokionez. Zigor Kodearen III. liburua erretiratzeaz eta, ondorioz, ebasketa-falta ebasketa-delitu arin bihurtzeaz gainera (Zigor Kodearen 234.2 artikulua), 2015eko legegileak erregulazio berritzaile bat eskaintzen du



delitu bat errepikatzen den kasuetarako, eta berrerortze anizkunaren modalitate hiperastundu bat ezartzen du (Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua). «1. Ebasketa egiten duenari urtebetetik hiru urte arteko espetxe-zigorra ezarriko zaio: [...] 7.a Errudunak, delitua egiten duenerako, betearazi beharreko kondena jaso badu titulu honetan bildutako gutxienez hiru delituen ondorioz, baldin eta delituok

izaera berekoak badira. Ez dira kontuan hartuko ezereztu diren edo ezereztu beharko liratekeen aurrekariak».

Arauaren hitzaurrean adierazten zenaren arabera, «Jabetzaren eta ondarearen aurkako delituen arauketa berrikusi egiten da; nagusiki, berrerortze anizkunak eta kriminaltasun larriak sortzen dituzten arazoei aurre egiteko. Horregatik, kendu egiten da ebasketa-falta, eta ohiko delinkuentziari aplikatzeko astungarri bat sartzen da. Astuntasun txikiagoko kasuak, lehen falta gisa zehatzen ziren haiek, delitu arin gisa arautzen dira orain; nolana ere, ez dira arintzat hartzen inguruabar astungarriren bat daukaten delituak —bereziki, jabetzaren eta ondarearen aurkako delituak behin eta berriz egitea—. Horrela, konpondu egiten dira berrerortze anizkunak sortzen zituen arazoak: ohiko delitugileak falta soilengatik kondenatzen ziren lehen; aldaketa honen ondorioz, ordea, tipo astundu baten egile izateagatik ezarri ahal izango zaie kondena, eta urtebetetik hiru urte arteko espetxe zigorra jaso ahal izango dute».

Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2015 Zirkularrak (*1/2015 Lege Organikoak gauzatutako erreforma penalaren ondoren delitu arinei dagokienez ekintza penala gauzatzeko jarraibideei buruzkoa*) baieztatzen du ezen delitu arinei dagozkien aurrekari penalak ez direla zenbatuko Zigor Kodeko 22.8 artikuluko berrerortzearen astungarri generikoa aplikatzerakoan. Eta, horren ondotik, hauxe adierazten du: «Delitu arina, ordea, izan daiteke ondarearen aurkako delituetan aurreikusitako azpitipo astundu batzuetan, hala nola ebasketa (Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua), iruzurra (Zigor Kodearen 250.1.8 artikulua), administrazio desleiala eta bidegabeko jabetzea (Zigor Kodearen 252. eta 253. artikulua, Zigor Kodearen 250.1.8 artikulura bidalita); izan ere, manu horiek tipo penal



berezi kualifikatuak dira, eta ez dute egiten bereizketarik delitu arinen eta ez hain astunen artean, eta baztertu baino ez dituzte egiten aurrekari ezereztuak edo ezereztu daitezkeenak».

Hala ere, Auzitegi Gorenaren Bigarren Salak iritzi zion —eta gaur egun tesi

finkatua da— 2015eko legegileak emandako erantzuna guztiz neurrigabea izan zela, eta adierazi zuen, orobat, Zigor Kodearen 235.1.7 eta 22.8 artikuluen interpretazio sistematikoak eragotzi egiten zuela aipaturiko lehen manuan subsumitzea delituaren subjektu aktiboari aldez aurretik ezarritako kondenen xedea delitu arin bat zuten kasuak; izan ere, Zigor Kodearen 22.8, 234. eta 235. artikuluen edukia hitzez hitz harturik, astuntasun txikiagoko delituengatik aurrekariak bakarrik astundu dezakete zigorra.

Auzitegi Gorenaren ekainaren 28ko 481/2017 Epaiaren hitzetan, «22.8 artikuluk ezartzen duenez, “berrerortzea dago, errudunak, delitu egiten duenerako, betearazi beharreko kondena jaso badu Kode honen titulu berera bildutako delitu baten ondorioz, baldin eta delitu hori izaera berekoa bada. Zenbaki honen ondoretarako, ezereztu diren edo ezereztu beharko liratekeen aurrekari penalak ez dira zenbatuko, ezta delitu arinei dagozkienak ere”. Bada, berrerortzearen kontzeptua hori bada, eta bertan delitu arinen zenbaketa baztertzen bada hori hautemateko, ez dirudi zentzuzkoa berrerortze anizkunaz hitz egitea, Zigor Kodearen zati orokorraren oinarrizko kontzeptua berrerortzetzat hartu behar dela kanpo utzita. Legegilea aurreko printzipio orokorretik abiatzen bada, hau da, delitu arinen ez-zilegitasun eskasak gainerako delituen kondena areagotzeko jardutea eragozten duela dioen printzipiotik, ez dirudi koherentea denik alde batera uztea Zigor Kodearen zati orokorrean delitu arin baten zigorra gaitzesteko formulatzen den berrerortzearen kontzeptuaren mugaketa, harik eta tipo penal hiperastundu bihurtzeraino (235.1.7 artikulua), Zigor Kodearen 234.1 artikuluan ezarritako bitarteko edo oinarrizko tipo penalarri ere jaramonik egin gabe. [...] Gauzak horrela, Zigor Kodearen 234. eta 235. artikulua



modu koherentean interpretatzeko berrerortze anizkunaren kontzeptua berrerortzearen oinarrizko kontzeptuarekin, eta, aldi berean, zigorraren proportzionaltasun-printzipioa errespetatzeko, zera ulertu behar da, lege-testuak aurreko hiru kondena aipatzen dituenean, hiru kondena horiek delitu ez hain astunengatik edo astunengatik izan behar direla, eta ez delitu arinengatik. Izan

ere, hori da Zigor Kodeak jasotzen duen berrerortzearen oinarritzko kontzeptuarekin bat datorren irizpide koherentea, eta, gainera, ez da inoiz berariaz baieztatzen 234. eta 235. artikuluetan aurreko zigorrak delitu arinak hartzen dituztela barnean» (ikus Auzitegi Gorenaren 569/2017 Epaia, uztailaren 17koa; 176/2018 Epaia, apirilaren 12koa; 500/2018 Epaia, urriaren 24koa; 579/2018 Epaia, azaroaren 21ekoa; 155/2019 Epaia, azaroaren 7koa; 550/2019 Epaia, azaroaren 7koa; eta 691/2021 Epaia, irailaren 15ekoa).

3. Uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak txertaturiko ebasketa-delituaren modalitate berri astundua

Uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoaren azken xedapenetako seigarrenak tarteki berri bat sartzen du Zigor Kodearen 234 artikulua bigarren apartatuan, zeinak delitu ez hain astunaren kategoria ematen baitio ebasketa arinak egiteari, baldin eta inguruabar jakin batzuk gertatzen badira:

1) Errudunak gutxienez hiru deliturengatik betearazpen-kondena jaso izana, delitu horiek arinak izan arren.

Tipo penal berria hautemateko, lehenik eta behin, delitua egiten den unean, egileak aurrez jasota eduki behar du, gutxienez, hiru deliturengatik betearazpen-kondena, izan delitu horiek astunak, ez hain astunak edo arinak.



Bestela esanda, lapurreta tipikoa gauzatzeko unean, delituaren subjektu aktiboak aldeztu aurretik kondenatuta egon beharko du epai irmo bidez gutxienez beste hiru delitu egin izanagatik, delitu guztiak edo batzuk arinak izanagatik ere. Hala, legegileak ihes egiten dio Zigor Kodearen 22.8 eta 66.1.5 artikuluek berrerortzeari eta berrerortze anizkunari buruz jasotzen duten definizioari, eta berrerortze-

kontzeptu berezi bat eskaintzen du, ebasketa-azpitipo astundu horri bakarrik aplikatzekoa.

Gogoratu behar da, ildo horretan, zer zioen Auzitegi Gorenaren ekainaren 28ko 481/2017 Epaiak berak; hau da, delitu arinengatiko aurreko kondenak zenbatu ezinaren arrazoia zela, Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua deskribatutako tipoa biltze aldera, inoiz ez dela baieztatzen «234. eta 235. artikuluetan modu espezifikoa aurreko kondenek delitu arinak biltzen dituztela».

Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiaren hitzez hitzeko edukiaren arabera, ezinezkoa da astuntzea aplikatzea, baldin eta delitua gauzatzeko unean subjektu aktiboa epai ez-irroz baino ez bada kondenatu, eta ezingo da aplikatu, era berean, subjektu berak gauzatutako hiru ebasketa-delitu edo gehiago batera epaitzen diren kasuetan ere (Prozedura Kriminalaren Legearen 17.3 artikulua), kondenak aurretik emanak izan behar baitute nahitaez.

2) Subjektua alde aurretik kondenatzea ekarri duten delituak Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluaren sartuta egotea, eta ebasketa-delituaren izaera berekoak izatea.

Legegileak delitu-modalitate hori eraikitzeko zabaltasuna, kontuan izanik haren aplikazioa Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluaren jasotako delituengatiko (ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkako delituak)



edozein kondenatara hedatzeko aukera dagoela, itxurazkoa da gehiago egiazkoa baino.

Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua modalitate hiperastunduan gertatzen den bezala, alde aurreko kondenak ebasketaren izaera bereko delituengatik izan beharrak nabarmen murrizten du azpitipo astundu berria hautemateko aukera.

3) Gauzatutako ebasketa-delitu arinaren eta aurreko kondenetatik eratorrien artean metatutako zenbatekoa 400 eurotik gorakoa izatea.

Baldintza hori betetzat joko da egotzitako ebasketa-delitu arinarekin lotuta ebatsitako objektuen kantitateen edo zenbatekoen eta subjektu aktiboa kondenarazi zuten hiru delituen edo gehiagoren batura 400 eurotik gorakoa denean.

Uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoaren ataririk ondoriozta daitekeenez, betekizun hori sartzearen helburua da erantzun penalaren proportzionaltasuna bermatzea; hau da, delitu ez hain astunaren kategoriara igotzea berez, banaka hartuta, ebasketa-delitu arin gisa soilik zigortuko liratekeen egitateak. Legegilearen beraren hitzetan, zeinak argi eta garbi uzten baitu *voluntas legislatoris* edo legegilearen borondatea, «Auzitegi Gorenak kritikaturako zigor-jauzi neurrigabea saihesteko, ebasketa arinaren delitu horien zigorra handitzea erabakitzen da, baina Zigor Kodearen 235.1 artikuluko tipo astunduaren espetxe-zigorrrera iritsi gabe. Hori horrela, ebasketa arinen edo 400 eurotik beherako kasuan, aurreikusten da handituko dela zigorra, baldin eta egilea berrerorle anizkuna bada eta lapurtutakoaren zenbateko osoa, aurretik egindako ebasketa-delituak barne, 400 eurotik gorakoa bada».

Auzitegi Gorenaren apirilaren 23ko 340/2021 Epaiak adierazten duen bezala, «ez dezagun ahaztu ezen, arau-baliorik ez badu ere, zioen azalpena (Konstituzio Auzitegiaren 36/1981 Epaiak,



azaroaren 12koa; 150/1990 Epaiak, urriaren 4koa, 2. oinarri juridikoa; 173/1998 Epaiak, uztailaren 23koa, 4. oinarri juridikoa; 116/1999 Epaiak, ekainaren 17koa, 2. oinarri juridikoa; eta 222/2006 Epaiak, uztailaren 6koa, 8. oinarri juridikoa), parlamentuko izapideekin batera, interpretazio-elementu garrantzitsua direla arauen norainokoa eta zentzua argitzeko (Konstituzio Auzitegiaren 15/2000 Epaiak, urtarrilaren 20koa, 7. oinarri juridikoa; eta 193/2004 Epaiak, azaroaren 4koa, 6. oinarri juridikoa; eta Konstituzio Auzitegiaren 68/2007 Epaiak, martxoaren

28koa, 6. oinarri juridikoa)». Antzeko iritzia dute Auzitegi Gorenaren otsailaren 10eko 113/2022 eta apirilaren 23ko 339/2021 Epaiek eta Auzitegi Gorenaren martxoaren 14ko 294/2019 Autoak.

Zenbait argudiok adierazten dute Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian deskribatutako jokabideak ez duela erabateko autonomiarik edo substantibotasunik lehenengo tartekian ebasketa-delitu arinaren oinarrizko modalitateari dagokionez:

i) Hiru edo lau ebasketa-falta modu homogeneoan egiteagatik egindako ohiko delitua ez bezala —zeina Zigor Kodearen 234. artikulua bigarren paragrafo indargabetuan aurreikusten baitzen, irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoak txertaturik—, jokabide tipiko berriaren eta ebasketa-delitu arinaren deskribapenak paragrafo eta apartatu berean agertzen dira.

ii) Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekian adierazitako delituaren subjektu aktiboa zehatutako jokabidearen «errudunari» erreferentzia eginez deskribatzen da lehen tartekian.

Aztertutako delitu-modalitatearen subjektu aktiboa deskribatzerakoan, manuak honako hau baino ez du adierazten: «halere, baldin eta errudunak...». Horrenbestez, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekian deskribatzen denarekin identifikatzen da delituaren subjektu aktiboa. Beste era batera esanda, ebasketa-delitu arinaren oinarrizko tipoa betearazteko erantzukizuna duen subjektu aktiboa da delitu-modalitate berri horren egilea, legeak hala aginduta.

Legegileak erabil zitzakeen beste formula batzuk uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak sartutako delitu-modalitate berriari berezko substantibotasuna emateko.



Zigor Kodearen 234.2 artikularen lehenengo eta bigarren tartekien arteko lotura adierazten duen formula bat erabiltzen da, eta zehazten du ohiko modalitate berriaren subjektu aktiboa dela lehenengo tartekian deskribatutako jokabidea gauzatzearen «erruduna». Alderdi horrek, era berean, agerian uzten du manu honetan epaitzen den ekintzaren subsuntzioak alde aurretik ebasketa arinaren oinarritzko tasa gauzatzea eskatzen duela.

Horrenbestez, ondorioztatzen da Zigor Kodearen 234.2 artikularen bigarren tartekiak ebasketa-delitu arinaren oinarritzko tipoaren modalitate astundu gisa jokatzeko duela. Hura aplikatzeko, lehenengo tartekian deskribatutako jokabide tipikoa gauzatu dela egiaztatu behar da alde aurretik, eta adierazi behar da tipo penal hori egitearen erruduna dela astunen zigortzen dena, baldin eta, aurrekoaz gainera, bigarren tartekian jasotako inguruabarrak gertatzen badira.

Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehenengo eta bigarren tartekien arteko lotura hori funtsezkoa da «baldin eta ostu duenaren zenbatekoa 400 euro baino gehiago bada» esamoldea interpretatzeko, eta, zehazkiago, zenbateko hori zehazteko kontuan hartu beharrekoak zein diren ebatzi ahal izateko.

«Betiere izaera berekoak badira» esamoldeak, zeina «baldin eta ostu duenaren zenbatekoa 400 euro baino gehiago bada» pasartearen aurretik baitago, errudunak gauzatutako arau-hauste guztiak hartzen ditu barnean, hau da, errudunak egindako ebasketa-delitu arina, baina baita aurretik eginiko eta kondenaturiko ondarearen aurkako eta ordena sozioekonomikoko delituak ere. Manuak eskatzen duen homogeneousuna ez da agertu behar subjektu aktiboa alde aurretik kondenatzea eragin zuten delituei loturik bakarrik, baizik eta delitu horien eta errudunak gauzatutako ebasketa-delitu arinaren artean ere gertatu behar da. Kontrakoa egitea logika sistematiko oinarritzkoenaren eta manuaren helburuaren aurka doa.



Azken buruan, egokia dirudi pentsatzea «baldin eta ostu duenaren zenbatekoa 400 euro baino gehiago bada» pasarteak eta haren aurrekoak helburu bera dutela; hots, arau-hausteen talde bera aipatzea. Bestela esanda, «betiere izaera berekoak badira» eta «baldin eta ostu duenaren zenbatekoa 400 euro baino gehiago bada» proposamenek aipatzen duten xedea ezin da izan arau-hausteen beste talde bati buruzkoa. Tesi horren alde, aipatzekoa da bi proposamenak batzeko «eta» juntagailu kopulatiboa erabiltzeak indartzen dituela aurreko argudioak.

Bestalde, «arau-haustek» esamoldea erabiltzeak agerian uzten du aztertutako proposamenak ez dituela soilik aipatzen «erruduna» betearazpen-bidean kondenarazi zuten delituak; izan ere, hala balitz, arrazoizkoagoa zatekeen manuari beste idazkera bat ematea. Hala ere, horrek «arau-haustek» esamoldea gehitzen du, eta hori, logikoa denez, legegileak izaera berekoak izatea eskatzen duen arau-hauste mota berari dagokio, baita bigarren tartekiak deskribatzen duen jokabidea duen subjektuari egozten zaizkion arau-hauste guztiei ere, hau da, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekiko ebasketaren oinarritzko tipoa egin izanaren «errudunari».

Are gehiago, esaldia ebasketa-delitu arinaren oinarritzko tipoa egitearen «errudunari» buruzkoa bada, komeni da ulertzea manuak «arau-hausteei» buruz egiten duen aipamenak subjektu horrek gauzatutako guztiei buruzkoa izan behar duela. Hitzez hitzeko testuaz gainera, eta, beraz, jokabide tipikoa deskribatzeko erabiltzen diren hitzen berezko zentzuaz aparte, aurrekari historiko eta legegintzakoek eta arrazoi dogmatikoek indartu egiten dute aukera hermeneutiko hori.



a) Bihurketa ahalbidetzen duen metaketa juridikoa osatzen duten aurretiazko kondenetako bat Zigor Kodearen 234.1 artikuluko oinarritzko ebasketa-tipoaren araberako kondena denean, nahikoa izango da orri historiko-penala prozedura judizialean sartuta egotea tipoak eskatzen duen emaitza egiaztatutzat jotzeko — hau da, delituengatik metatutako zenbatekoa 400 eurotik gorakoa izatea—.

b) Aurretiazko kondenak ebasketa-delitu arinengatik eta/edo Zigor Kodearen 235. artikuluko ebasketa-modalitate hiperastunduetako batengatik badira, orri historiko-penalak ez du aukerarik ematen delituengatik metatutako zenbatekoa 400 eurotik gorakoa den jakiteko; horrenbestez, fiskalek kondena-epai bakoitzaren lekukotza osoa bilduko dute organo judizialetatik, eta, hartara, alderdi hori segurtasunez ezagutzeko aukera izango dute, behar diren bermeekin egiaztatzeko.

4.) Delitu ez hain astun bihurtzea ahalbidetzen duen metaketa juridikoa oinarritzen duten kondenak ondoriozko aurrekari penalak ez ezereztu izana edo ezereztu behar izatea ordenamendu juridikoaren arabera.

Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren paragrafoaren arabera, «ez dira kontuan hartuko ezereztu diren aurrekariak edo ezereztu beharko lirakeenak». Horrek, nahitaez, uko egiten dio Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekia aplikatzeko aukerari, tipoaren aplikazioa oinarritzen duten kondenetatik eratorritako aurrekari penalak ez daudenean indarrean delitua gauzatzen den unean. Fiskalek, beraz, Zigor Kodeko 136. artikuluko aurrekari penalak ezerezteari buruzko arau orokorrak bete beharko dituzte.

Adingabeen erantzukizun penalarri eta aurrekariak ezerezteari dagokionez, fiskalek kontuan hartuko dituzte



Zigor Kodearen 137. artikuluko arauak Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2007 Zirkularrean (*2006ko adingabeen legeria penala erreformatu ondorengo interpretazio-irizpideei buruzkoa*) jasotako irizpideak, zeinetan hau zehazten

baita: «Gogoratu behar da abenduaren 18ko 1/2000 Zirkularrak berrerortzeaz egin zuen interpretazioak nabarmen murrizten duela xedapen honen eremua. Zirkular horretan —eta ondoriootarako guztiz indarrekoztat jo behar da— adierazten da gai honetan Zigor Kodearen aplikazio osagarria gailentzen dela, kontuan hartuta Adingabeen Erantzukizun Penalaren Lege Organikoak jasotako neurriak ez direla berez zigorrak eta errudunaren alde gehien egiten duen ezerezte-araubidea segurtasun-neurriak direla. Horren ondorioz, Zigor Kodearen 137. artikulua aplikatu behar da, zeinaren arabera kasuan kasuko neurria bete edo preskribatu ondoren ezereztuko baitira kode horretan edo beste zigor-lege batzuetan xedatutakoaren arabera ezarritako segurtasun-neurrien idatzoharrak. Beraz, adingabe bat ez da joko berrerortzetat, nahiz eta aurretik kondenatua izan titulu berean jasotako eta izaera bereko delitu batengatik, baldin eta egitate berria gauzatzean neurria bete badu, beste epe gehigarririk kontuan hartu gabe».

Aurreko gogoetak kontuan hartuta, fiskalek zehatz-mehatz jasoko dituzte akusazio-idazkian delitu ez hain astun bihurtzea justifikatzen duten aurrekari penalak, eta, zehazki, honako hauek:

- i) Kondena-epaien datak.
- ii) Kondena bakoitza zein delituren bidez eman zen.
- iii) Ezarritako zigorrak.
- iv) Zigorrak behin betiko iraungi ziren datak.
- v) Kasu bakoitzean ostutako zenbatekoa, frogatutako egitateen kontakizunetik ondorioztatzen denaren arabera. Hala ere, orri historiko-penalaren edukitik inolako zalantzarik gabe ondorioztatzen denean kondena nahitaez izan zela



400 eurotik gorako zenbatekoagatik, nahikoa izango da hori bera adieraztea, zenbatekoa zehaztu beharrik gabe.

Ildo horretan, hauxe dio Auzitegi Gorenaren ekainaren 30eko 670/2022 Epaiak:

«Sala honen jurisprudentziaren arabera, berrerortzearen astuntzea aplikatzea bidezkoa izan dadin, beharrezkoa da epaian berariaz agertzea Zigor Kodearen 22.8 artikuluan eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatzen duten datu faktikoak, ez dadin izan zalantzarik zigor-aurrekariak ezereztu ote diren Zigor Kodearen 136. artikuluan aurreikusitako epeak igaro izanagatik. Adierazi dugunez, kontakizun faktikoak aurreko kondena-epaiaren data, kondena eragin zuen delitua eta ezarritako zigorra benetan betetzeko data jaso behar ditu, data hori hartu behar baita kontuan Zigor Kodearen 136. artikuluan adierazitako epeak zenbatzeko. Aipamen horiek gabe, azpimarratu dugu ezin izango dela hauteman berrerortzea, zehaztugabetasun-egoera bat sortzen baita, eta hori errudunaren alde ebatzi behar da» (ikusi Auzitegi Gorenaren 461/2020 Epaia, ekainaren 25ekoa; 350/2019 Epaia, uztailaren 5ekoa; 68/2019 Epaia, abenduaren 13koa; eta 538/2017 Epaia, uztailaren 11koa).

Hala ere, Auzitegi Gorenaren otsailaren 4ko 97/2021 Epaia xedatzen duen bezala, ez da *factum*ean jaso beharko kondenaren iraungitze-data, baldin eta ezerezte-epea ezin izan bada igaro kondena-epaiaren dataren eta egungo epaiketa egiteko egintza betearazteko dataren artean (ikusi Auzitegi Gorenaren 336/2018 Epaia, uztailaren 4koa).

Era berean, gogoratu behar da Zigor Kodearen 22.8 artikulua hirugarren paragrafoaren arabera, Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan ezarritako kondena irmoek berrerortze-ondorioak izango dituzte, aurrekari penala Espainiako zuzenbidearen arabera ezereztu denean edo ezereztu daitekeenean izan ezik. Kondena horiek



Aurrekari Penalen Europako Informazio Sistemaren bidez (ECRIS-TCN) bildu ahalko dira.

Azkenik, komeni da zehaztea Zigor Kodearen 234.3 artikulua arabera, Zigor

Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekiko ebasketa-modalitate astundua goiko erdian aurreikusitako zigorrarekin zigortuko dela, baldin eta «ostu diren gauzetan ezarritako alarma edo segurtasun-aparatuak neutralizatu, kendu edo deuseztatzen badira, edozein bide erabiliz».

4. Gai espezifikoak

4.1 Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiko modalitate astunduaren eta Zigor Kodearen 235.1.7 artikuluko modalitate hiperastunduaren arteko harremana

Zigor Kodearen 234.2 artikuluari uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoaren bidez emaniko idazkera berriak hainbat interpretazio onartzen ditu.

Alde batetik, uler daiteke Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiko salbuespenik gabe zigortzen duela ebasketa-delitu arin baten egilea alde aurretik izaera bereko hiru delituegatik kondenatua izan den kasu guztietan, betiere kondena horien ondoriozko aurrekari penalak konputagarriak badira aipatutako manua jasotako arau berezien arabera eta, era berean, arau-hausteen zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa bada. Eta hori guztia kontuan hartu gabe alde aurreko kondenak delitu arinengatik, astuntasun txikiagoko delituegatik edo astunengatik diren.

Interpretazio horren alde eginez, uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak honako hau dio hitzaurrean: «beharrezkotzat jotzen da Zigor Kodearen 234.2 artikulua aldatzea, ebasketa arinen kasuei zehapen astunagoa ipintzeko,



betiere 400 eurokoak badira gehienez eta delitugilea berrerorle anizkuna bada. Ondorio horietarako, Auzitegi Gorenak kritikaturako zigor-jauzi neurrigabea saihesteko, ebasketa arinaren delitu horien zigorra handitzea erabakitzen da,

baina Zigor Kodearen 235.1 artikuluko tipo astunduaren espetxe-zigorrera iritsi gabe. Hori horrela, ebasketa arinen edo 400 eurotik beherakoen kasuan, aurreikusten da handituko dela zigorra, baldin eta egilea berrerorle anizkuna bada eta lapurtutakoaren zenbateko osoa, aurretik egindako ebasketa-delituak barne, 400 eurotik gorakoa bada. Kasu horretan, ordea, Zigor Kodearen 235.1 artikuluko tipo astunduaren zigorra ez, baizik Zigor Kodearen 234.1 artikuluko oinarrizko tipoaren zigorra ere ezarri beharko da —hots, 6 hilabetetik 18 arteko espetxe-zigorra—. Hala, berrerortze anizkunaren kasuei erantzun penal disuasiboagoa eman ahalko zaie, hobeto egokitua jokabidearen astuntasunera, zigorra neurritz kanpo handitu gabe».

Bigarren aukera hermeneutikoak, zeina zirkular honek bere egiten baitu, ulertzen du Zigor Kodearen 234.2 artikuluren bigarren tartekia, lehenbizikoa bezalaxe, Zigor Kodearen 235. artikuluan deskribatutako modalitate hiperastunduak ez direnean bakarrik dela aplikatzekoa. Beste era batera esanda, jokabidea Zigor Kodearen 235. artikuluan subsumitu ezin denean bakarrik jo ahalko da Zigor Kodearen 234.2 artikulura.

Jurisprudentziak onartu du Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua edukian subsumitu ahal izatea zenbait kasu, zeinetan, ostutakoaren zenbatekoa 400 eurotik beherakoa izan arren, delituaren erantzulea hiru ebasketa-delitu ez hain astunengatik aldeztu aurretik kondenatua izan den kasuetan [ikus Auzitegi Gorenaren 579/2018 Epaia, azaroaren 21ekoa; 738/2018 Epaia, otsailaren 5ekoa; 550/2019 Epaia, azaroaren 12koa, 918/2021 Epaia, azaroaren 24koa; eta Kantabriako Probintzia Auzitegiaren 230/2020 Epaia (3. sekzioa), maiatzaren 27koa; Valladolideko Probintzia Auzitegiaren 167/2021 Epaia (2. sekzioa), uztailaren 19koa; Bartzelonako Probintzia Auzitegiaren 565/2021 Epaia (5. sekzioa), irailaren 6koa; Bartzelonako Probintzia Auzitegiaren 114/2022 Epaia (2. sekzioa), otsailaren 16koa]. Finean, Zigor Kodearen 235.1.7, 22.8 eta



aurrekariak zenbatzea, modalitate hiperastundu hori aplikatze aldera, ez da izango inola oztoporik delituaren erantzuleak delitu ez hain astunengatik dituen aurrekariak kontabilizatzeko.

Uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoaren bidez eginiko Zigor Kodearen 234.2 artikulua erreformak ez ditu ezertan aldatu aurreko gogoetak, aldaketa horrekin batera ez baita berriro Zigor Kodearen 235.1 artikulua. Hori dela eta, ondorioztatu behar da haren aplikazio-eremuak bere horretan jarraitzen duela. Horrenbestez, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekiko azpitipo berri astunduak ez du ordeztzen edo xurgatzen —eta are gutxiago indargabetzen— ebasketaren modalitate hiperastundua, Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua zehatua.

Azken delitu-modalitate horren berezko tasunaren adibide argia da aplikazio-espazio propioak egiaztatu izana, zeinak ezin baitira bildu, ezta abstraktuan ere, Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian. Hala gertatzen da, adibidez, 400 eurotik beherako ebasketa egiten duen pertsonaren kasuan; hau da, aldeztu aurretik hiru delitu ez hain astunengatik kondenatu ondoren, lapurtutakoaren zenbateko metatua ez denean 400 eurotik gorakoa.

Pentsa dezagun, konparazio baterako, 30 euro dituen diru-zorro bat ostu izana egozten zaion subjektu baten kasuan, zorroaren balio benala 10 eurokoa izanik, eta aldeztu aurretik kondenatu badute Zigor Kodearen 235.1.8 artikuluari jarraikiz, hamasei urtetik beherakoak erabili izanagatik jendearentzat irekitako merkataritza-establezimenduetan salgai zeuden produktuak lapurtzeko, 40, 50 eta 35 euroko zenbatekoetan, betiere ez bada hauteman jarraipen-erlaziorik lapurreta horien artean.



zenbatekoa 400 eurotik gorakoa bada, egitateok ere zigortu beharko lirateke Zigor Kodearen 235.1.7 artikuluari jarraikiz. Bigarren kasu horretan, agertuko lirateke Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekiko elementu objektibo eta subjektiboak, eta, hala ere, zentzugabea litzateke objektiboki astunagoa den egitate bati zigor-erantzun arinagoa ematea. Horren arrazoia da Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua deskribatutako kasuak baduela tipo-eskakizun bat, eta, antzekotasun nabarmenak izan arren, ez dagoela jasota Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian: berrerortzearen ondorioetarako zenbatu daitezkeen aurretiazko hiru kondenak delitu ez hain astunengatik edo astunengatik izan beharra. Premisa horrek, gainerakoan, bereizi egiten du ebasketa-tipo hiperastundua, Zigor Kodearen 235.1.7 artikuluan aurreikusitako berrerortze anizkunagatik, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekiaren modalitate astunduari dagokionez, zeinak, puntu honetan behintzat, kasu zabalago bat arautzen baitu —eta, beraz, ez hain espezifiko— eta manu subsidiario gisa jarduten baitu.

Aurreko gogoetek adierazten dutenez, jokabide bera aldi berean subsumitu badaiteke Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekian jasotako kasu tipikoan eta Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua arabera zehatu, modalitate hiperastundu horren alde ebatzi beharreko arau-aldiberekotasun bat dagoela ikusi beharko da, subsidiariorotasun-printzipioa dela-eta (Zigor Kodearen 8.2 artikulua). Izan ere, Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian jasotako ebasketa-modalitate berria aplikatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua jokoan ez sartzea, zeina manu nagusitzat hartu behar baita ondorio horretarako.

A contrario sensu, uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak sartutako ebasketa-modalitate astundua ez da bereziagoa Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua aurreikusitako hiperastundua baino; izan ere, azken horrek eskatzen du berrerortzearen ondorioetarako konputagarriak diren aurretiazko kondenak delitu ez hain astunengatik edo astunengatik izatea, eta albo batera uzten ditu delitu arinak. Era berean, baztertzekoa da Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua subsidiarioa izatea



Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekiaren aurrean; izan ere, Zigor Kodearen 234.2 artikulua aplikatzeko beharrezkoa baita ez agertzea Zigor Kodearen 235.1 artikuluko inguruabarrak. Hori dela eta, Zigor Kodearen 234.2 artikulua zehazten du apartatu hori aplikatu ahal izango dela «235. artikuluko inguruabarraren bat gertatzean salbu». Azkenik, argi dago Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiak ez duela deskribatzen, Zigor Kodearen 8.3 artikuluari jarraikiz, Zigor Kodearen 235.1.7 artikuluan jasotakoa baino kasu zabalago bat, ez eta Zigor Kodearen 8.4 artikulua aurreikusitakoa baino jokabide larriagorik ere.

Zigor Kodearen 234.2 artikulua lehenengo tartekiak argi eta garbi adierazten du lapurtutako zenbatekoa edo delituaren objektu materialaren balioa 400 eurotik beherakoa izan arren, jokabide hori Zigor Kodearen 235. artikulua arabera zigortuko dela, baldin eta han aurreikusten diren baldintzak betetzen badira. Era berean, Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tarteki berriak adierazten duenez, lehenengo tartekian xedaturikoa gorabehera, baldin eta «errudunak betearazi beharreko kondena jaso badu titulu honetan bildutako gutxienez hiru delituen ondorioz, baldin eta delituok izaera berekoak badira eta arau-hausteen zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa bada», egitate hori Zigor Kodearen 234.1 artikuluko ebasketa-delituaren oinarrizko tipoarentzat aurreikusitako zigorrarekin zigortuko da.

Gaztelaniazko «*no obstante*» esamoldeak bi adiera posible onartzen ditu, segun eta adberbiozko lokuzio baten aurrean gauden, edo, aldiz, preposiziozko lokuzio baten aurrean. Lehenengo kasuan, zalantzen hiztegi panhispanikoaren arabera, gaztelaniazko «*no obstante*» horrek «hala ere» esan nahiko luke; bigarren kasuan, ordea, «nahiz eta».

Adberbiozko lokuzio baten aurrean gaudela ulertuko bagenu, ondorioztatu beharko genuke «*no obstante*» esamoldearen tokian ipin daitekeela «hargatik eragotzi gabe», eta inguruabar horrek gomendatuko luke



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

jokabide bat Zigor Kodearen 235.1 artikuluan subsumitzea inola ere ez litzatekeela traba Zigor Kodearen 234.2 artikuluaen bigarren tartekia aplikatzeko.

Alabaina, ulertuko bagenu esamolde preposizional baten aurrean gaudela, haren tokian erabili liteke «nahiz eta» esapidea, eta horrek aukera emango luke pentsatzeko Zigor Kodearen 234.2 artikuluaen bigarren tartekia kasu bakarrean izango dela aplikatzekoa, hain zuzen ere, gauzaturiko jokabidea ez dela Zigor Kodearen 235.1 artikuluko modalitate hiperastundu batean ere zigortzeko modukoa. Interpretazio-aukera horren aldeko hautua egiten dugu zirkular honetan.

Aurreko guztia kontuan izanik, jarduteko ildo hauek proposatzen ditugu:

1) Lapurtutakoaren zenbatekoa 400 euro baino gehiagokoa ez denean, ez denean gertatzen Zigor Kodearen 235. artikuluko inguruabarretako bat ere eta delituaren erantzuleak ez duenean aurrekari penalik, egitateak Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekiko ebasketa-delitu arintzat joko dira.

2) Lapurtutakoaren zenbatekoa 400 euro baino gehiagokoa ez denean, ez denean gertatzen Zigor Kodearen 235. artikuluko inguruabarretako bat bera ere eta delituaren arduraduna aldeztu aurretik kondenatu badute delitu astun edo ez hain astun bat edo bi egitegatik —berrerortze gisa zenbatzeko moduan—, egiteak Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekiko ebasketa-delitu arin gisa kalifikatuko dira, arau-hausteengatik metatutako zenbatekoa 400 eurotik gorakoa den gorabehera.

3) Lapurtutakoaren zenbatekoa 400 euro baino gehiagokoa ez denean, ez denean gertatzen Zigor Kodearen 235. artikuluko inguruabarretako bat ere eta delituaren arduraduna lehendik ere kondenatua izan bada hiru delitu edo gehiagotatik —baita delitu arinengatik ere— eta delituok konputagarriak badira berrerortze-ondorioetarako, gertakariak Zigor Kodearen 234.2 artikuluaen bigarren tartekiko ebasketa-delitu arin gisa kalifikatuko dira, baldin eta



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

arau-hausteengatik metatutako zenbatekoa ez bada 400 euro baino handiagoa, eta delitu astunengatik eta/edo ez hain astunengatik izaniko kondena konputagarrien kopurua ez bada bi baino gehiago.

4) Lapurtutakoaren zenbatekoa 400 eurotik gorakoa ez bada, baina delituaren erantzulea alde aurretik hiru delitu astun edo ez hain astunengatik edo gehiagorengatik kondenatua izan bada berrerortzearen ondorioetarako, eta arau-hausteengatik metatutako zenbatekoa 400 eurotik gorakoa bada, egitateak Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua arabera kalifikatuko dira eta kontuan hartuko dira Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiko arauak ere (lehen manuairen alde ebatzi beharko da, Zigor Kodearen 8.2 artikulua subsidiariorotasun-aruari jarraikiz). 400 euroko zenbateko metatua gainditzen ez bada, egitateak Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua arabera kalifikatuko dira.

5) Lapurtutakoaren zenbatekoa 400 euro baino gehiagokoa ez denean, Zigor Kodearen 235. artikuluko inguruabarretako bat ere gertatzen ez denean eta delituaren arduraduna aurrez hiru delituegatik kondenatu badute —arinak izanda ere— eta delituok konputagarriak badira berrerortze-ondorioetarako, gertakariok Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiaren arabera kalifikatuko dira, baldin eta arau-hausteengatik metatutako zenbatekoa 400 eurotik gorakoa bada eta delitu astunengatik edo ez hain astunengatik izaniko kondena konputagarrien kopurua ez bada bi baino handiagoa.

Azkenik, Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian eta 235.1.7 artikuluan jasotako delitu-modalitateen artean arau-aldiberekotasuna dagoela ikusten den kasuetan, fiskalek zehaztuko dute beren idatzien bigarren ondorioan aldiberekotasun-harreman hori Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua alde ebatziko dutela, Zigor Kodearen 8.2 artikulua dioenari jarraikiz. Hau da, berariaz zehaztu beharko dute aldiberekotasun-harreman hori dagoela. Era berean, Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua eskatu ez arren, kasu horietan fiskalek



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

beren akusazio-idazkietako lehenengo ondorioan zehaztu beharko dute arau-hausteengatik metatutako zenbatekoa 400 eurotik gorakoa dela, eta kontu handiz egiaztatu beharko dute auzi hori, zirkular honetan ezarritako jarraibideen arabera, Zigor Kodearen 234.2 artikuluaen bigarren tartekiari dagokionez.

4.2 Delitu jarraituaren figurarekin batera agertzea

Uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak sartutako ebasketa-modalitate berriak interpretazio-zailtasun handiak dakartza. Manu berriaren irakurketak sortzen duen zalantzetako bat delitu-jarraitutasunaren kasuei eman beharreko tratamenduarekin dago lotuta.

Hori horrela izanik, gerta liteke egitate berak aldi berean kalifikatzea Zigor Kodearen 234.1 artikuluan aurreikusitako delitu jarraitu gisa, eta, aldi berean, Zigor Kodearen 234.2 artikuluaen bigarren tartekiko ebasketa-delitu gisa.

Delitu jarraituaren figurak aukera ematen du, ondorio juridikoetarako bakarrik eta ekintza bakar bat balitz bezala, hainbat arau-hauste penal batzeko, kontuan izanik banaka hartuta ez datozela bat akzioaren batasun tipiko edo naturalaren kontzeptuarekin.

Ikuspegi ontologikotik delitu-jarraitutasunari dagokionez dauden arau-haustek ondo baino hobeto bereizi badaitezke ere —arau-hauste guztiek duten substantibotasuna hautemanda—, ikuspegi normatibotik erreparatuta ulertu behar da delitu jarraitua osatzen duten delituak bateratu egiten direla eta zigor-ondorioetarako ekintza juridikoko batasun bat eratzen dutela (ikus Auzitegi Gorenaren 536/2022 Epaia, maiatzaren 30ekoa; 395/2021 Epaia, maiatzaren 6koa; 447/2017 Epaia, ekainaren 21ekoa; eta 374/2017 Epaia, maiatzaren 24koa). Horrenbestez, delitu jarraituak berez



arau-hauste konplexu bakarrean biltzen ditu, delitu bakar gisa zehatzeko moduan, une desberdinetan egindako ekintza homogeen desberdinak, ebazpen-batasuna dutenak. Hartara, Auzitegi Gorenaren maiatzaren 6ko 395/2021 Epaia adierazten duen bezala, «delitu jarraitua ohiko banakako hainbat jarduketek osatzen dute, baina, dolo-batasuna dela-eta, azkenean unitate juridikotzat hartzen dira, eta, bidegabekeria areagotu izanaren poderioz, zigor astunagoa aplikatzen zaio ekintza-batasun tipikoari ezarriko litzaiokeena baino» (ikusi, era berean, Auzitegi Gorenaren maiatzaren 27ko 530/2022 Epaia; ekainaren 16ko 521/2021 Epaia; urriaren 9ko 458/2019 Epaia; eta maiatzaren 24ko 262/2019 Epaia).

Azken batean, delitu-jarraitutasuna ez da ondorio penologiko hutsa, baizik eta delitu-egitate desberdinei batasuna ematen dien arau juridikoa, arau-hauste bakartzat hartzen baitira Zigor Kodearen 74. artikulua oinarriak betetzen direnean. Auzitegi Gorenaren ekainaren 21eko 671/2006 Epaia arabera, «delitu jarraitua ez da fikzio juridiko soil bat, errudunaren mesedetan ebazten dituen delitu-egiteak dakartzan zigorrak aplikatzearekin loturiko arazoak, baizik eta benetako “errealitate juridiko” bat, aukera ematen duena prozesu unitario bat eraikitzeke batasun objektibo eta subjektibo jakin bat duten hainbat ekintzaren gainean; izan ere, Auzitegi Gorenaren 2.2.98 eta 25.5.99 epaiek adierazten duten bezala, frogatutzat jotzen diren egitateetatik egilearen helburu edo plan bakar bati erantzuten dioten egintzen homogeenotasuna sortzen bada, nekez isolatu ahal izango dira elkarrengandik, eta ekitaldi bakoitzean dolo unitario bat sortuko da, berritu gabea, egintzen progresio horren bidez lortu nahi dena, eta, orobat, juridikoki delitu-jarraitutasunaren bidez egiten den batasun objektibo eta subjektiboa eraikitzen ari bada» (ikusi, halaber, Auzitegi Gorenaren 810/2022 Epaia, urriaren 13koa; 710/2022 Epaia, uztailaren 13koa; 176/2021 Epaia, otsailaren 18koa; 265/2021 Epaia, apirilaren 22koa; 127/2020 Epaia, urtarrilaren 16koa; 650/2018 Epaia, abenduaren 14koa; eta 826/2017 Epaia, abenduaren 14koa).



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Ondarearen gaineko arau-hauste jarraituen kasuan, aho batez onartu da eragindako kalte osoaren arabera egin behar dela kalifikazio juridikoa. Auzitegi Gorenaren Bigarren Salak adierazi duenez, besteak beste, Auzitegi Gorenaren martxoaren 28ko 308/2022 Epaian, «jurisprudentziak birtualtasun akumulatiboa eta ez aukerakoa eman die 74.1 eta 2 artikuluei ondare-delituetan. 74.2 artikulua arauak ez du baztertzeko 74.1 artikulua arau orokorra, salbu eta astuntze bikoitz bat gertatzen bada arrazoi beragatik (zenbatekoa 400 eurotik gorakoa denean edo, kasuaren arabera, 50.000 eurotik gorakoa denean): lehenbizikoa (74.2 artikulua) kontuan izanik 250. artikulua zenbatekoagatik astuntzea dela-eta —edo 249.2 artikuluko— iruzur guztia batuz bakarrik lortzen da; bestea (74.1 artikulua) ekintza bat baino gehiago izateagatik. Zigor Kodearen 74.1 artikulua ez da beti bateraezina zenbatekoagatik astundutako ondare-delituekin. Soilik *bis* bat eragiten duen *idem* bat (ekintza bat baino gehiago) identifikatzen denean (zenbatekoaren ondoriozko astuntzea, ekintza indibidualen batuketaren bidez soilik lortzen dena, eta ekintza asko izateagatik beste astuntze bat). Arau orokorra bateragarritasuna da; salbuespena, berriz, 74. artikuluko 1. araua baztertzeko, baldin eta hainbat ekintzatan egindako iruzurraren batura eginez bakarrik betetzen bada zenbatekoak eragindako astuntzea. [...] Bi arauak batzen dira —hau da, 74.1 artikuluko orokorra eta 74.2 artikuluko ondare-delituetarako berezia— eragindako kalte osoa kontuan hartzeak kalifikazioaren aldaketa astungarririk ez dakarrenean. Bestela, berriz, 74.1 artikuluko. Hala erabaki zuen Sala honetako Osoko Bilkura ez-jurisdikzionalaren 2007ko urriaren 30eko Erabakiak, zeina esplizituki aipatzen baitu fiskalak: Delitu jarraitua zigorraren goiko erdiarekin zigortzen da beti. Ondare-delituen kasuan, oinarrizko zigorra ez da arau-hauste astunenaren arabera zehazten, eragindako kalte osoaren arabera baizik. Lehen araua, Zigor Kodearen 74.1 artikulua, indarrik gabe geratuko da haren aplikazioa balorazio bikoitzaren debekuaren aurkakoa denean» (ikusi, orobat, Auzitegi Gorenaren 530/2022 Epaia, maiatzaren 27koa; 507/2020 Epaia, urriaren 14koa; 482/2020 Epaia, irailaren 30ekoa; 35/2020 Epaia, otsailaren 6koa; 684/2019 Epaia, 2020ko otsailaren 3koa; eta 419/2020 Epaia, uztailaren 22koa).



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Aurreko gogoetak kontuan hartuta, ondoriozta daiteke ezen Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiko ebasketa-delitu arin gisa banaka kalifika daitezkeen delitu-egitateak, delituaren jarraitutasun-harremana ageri bada eta batera 400 euroko zenbatekoa gainditzen bada, ebasketa-delitu jarraitu bakar gisa kalifikatu behar direla, Zigor Kodearen 74.2 eta 234.1 artikuluetan jasotakoarekin bat (ikus Auzitegi Gorenaren 691/2021 Epaia, irailaren 15ekoa, eta 530/2022 Epaia, maiatzaren 27koa). Eta hori, banaka hartuta ere, Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiaren modalitatean sar daitezkeenean.

Aipatutako aukera hermeneutiko horrek koherentzia logiko-sistematikoa bermatzen du delituaren jarraitutasun-erlazioa Zigor Kodeko 234.1 artikuluko ebasketa-delitu ez hain astun baten edo gehiagoren artean eta Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiko ebasketa-delitu ez hain astun bat edo gehiagoren artean dagoen kasuei eman behar zaien erantzun penalean. Kasu horretan, zentzuzkoa dirudi ulertzea etengabeko ebasketa-delituzat kalifikatu behar dela Zigor Kodearen 234.1 eta 74.1 eta 2 artikuluetako ebasketa-delitu jarraitua. Era berean, koherentzia bermatzen du delituaren jarraitutasun-harremana Zigor Kodearen 235. artikuluko ebasketa-delitu baten edo gehiagoren artean hautematen den kasuen tratamenduan eta Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiko ebasketa-delitu ez hain astun bat edo gehiago hautematen diren kasuan, batez ere lehen kasuan lapurtutakoaren zenbatekoa 400 eurotik gorakoa ez denean.

Soluzio bera eskaini behar zaio lapurtutakoaren baturak, delituaren jarraitutasuna hautematearren, astuntasun bereziagatik astundutako azpitipoa aplikatzea eragiten duen kasuari, lapurtutako objektuen balioa kontuan hartuta (Zigor Kodearen 235.1.5 artikulua).

Era berean, irizpide horrek errespetu handiagoa dio Zigor Kodearen 74.2 artikuluari. Zehazki, ikusirik obligazioa dela arau-hauste jarraituetan zigorra ezartzeko kontuan hartzea, batetik, eragindako guztizko kaltea eta, bestetik,



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

doktrinak eta jurisprudentziak klausula horri buruz egin duten interpretazioa.

Azkenik, irizpide hori hobeto dator bat delitu jarraitua delitu bakartzat hartzearekin, doktrinan eta jurisprudenzian gaur egun nagusi den moduan.

Halaber, ondorio dialektiko hutsetarako kontuan hartzen bada arau-aldiberekotasuna dagoela Zigor Kodearen 234.1 artikulua eta Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiaren artean, ulertzeagatik delitu-jarraitutasuna osatzen duten arau-hausteez ez dutela galtzen substantibotasuna Zigor Kodearen 74. artikulua eraginez, soluzioak azken buruan berbera izan beharko luke: hau da, bi delituen arteko arau-aldiberekotasuna Zigor Kodearen 234.1 artikulua alde ebatziko da, Zigor Kodearen 8.2 artikulua jasotako subsidiarotasun-aruari jarraikiz.

Ebasketa-delitu ez hain astunak eta ebasketa-delitu arinak egiaz espezialitate-maila bera dute. Lehenengoak lapurtutakoaren zenbatekoa 400 eurotik gorakoa izatea eskatzen du, eta bigarrenak, berriz, kontrakoa. Gogoeta berberak egin daitezke Zigor Kodearen 234.1 artikulua eta Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiaren arteko harremanaz. Kasu honetan, espezialitatearen printzipioa ez da baliagarria sorturiko gatazka konpontzeko. Bi figura horiek nukleo komun bat dute, baita elementu espezifikoa ere. Izan ere, manu bat beste bat baino bereziagozat jo daiteke, baldin eta haren elementu objektibo eta subjektiboez gainera beste gehigarriren bat ere badu.

Era berean, ez da aplikagarria Zigor Kodearen 8.3 artikulua. Auzitegi Gorenaren otsailaren 6ko 39/2020 Epaiak adierazten duen bezala, «jokabide penal konplexu bat denean, batzuetan arau-hauste bat beste arau-hauste astunago batean xurgatzen da, zeinak legez kontrako portaera osoa hartzen baitu barnean. Xurgatze hori gertatzen da,



konplexutasunak konplexutasun, dagokion portaeraren esanahi antijuridiko guztia arau bakar baten aplikazioarekin estalita geratzen denean; kontrako kasuan, berriz, delitu-pilaketa baten aurrean geundeke. Hau da, jokabidea ongien zedarritzen duena dago termino zabalago edo lausoagoetan izendatzen duenaren gainetik. Kasu horretan, zigor-manurik zabalena edo konplexuenak xurgatzen ditu hartan egindako arau-haustek tipifikatzen dituzten manuak, baina mehatxuan egiaztatutako urratzeak osatzen du hemen astundutako azpitipoa, baina gainerako urratzeek eta horien egintza-aniztasunak ezin dute egin bide konsuntiboan, zigorrik gabe geratuko bailirateke». (ikus Auzitegi Gorenaren 268/2022 Epaia, martxoaren 22koa; 807/2017 Epaia, abenduaren 11koa; eta 892/2021 Epaia, azaroaren 18koa). Hori horrela, ondoriozta daiteke Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiko ebasketa-modalitate berriak ez duela xurgatzen Zigor Kodearen 234.1 artikuluan deskribatutako figuraren esanahi antijuridiko osoa, nahiz eta biek antzeko antijuridikotasun-maila izan. Gainerakoan, ez dago irizpide hori aldatzea justifikatzen duen arrazoirik, bi delituak delitu-jarraitutasunarekin lotuta badaude.

Bi manuen arteko harremana subsidiarioritasun-printzipioaren arabera ebatzi beharko litzateke, arau-aldiberekotasunik hautemanetz gero. Zigor Kodearen 234.1 artikuluko ebasketa-delitu ez hain astuna Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian zigortutakoaren aurkako delitu nagusitzat hartu behar da, zeina delitu subsidiario gisa agertzen baita ondorioz. Izan ere, uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak sartutako ebasketa-modalitate berriak aldeztu aurretik ebasketa-delitu arin bat egitea hartzen du oinarritzat. Kontuan izan behar da delituaren subjektu aktiboa manu bereko lehen tartekiaren arau-hausteko «errudun» gisa deskribatzen dela. Inguruabar horrek erakusten du zer lotura dagoen Zigor Kodearen 234.2 artikulua lehen eta bigarren tartekien artean, eta, bereziki, egitate tipikoak ebasketa-delitu arin bat egin dela aldeztu aurretik egiaztatzea eskatzen duela. Horregatik, ebasketa-delitu arina Zigor Kodearen 234.1 eta 235. artikuluetan aurreikusitako modalitatetik ezean bakarrik aplikatu badaiteke, ondorioztatu behar dugu



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

modu analogoan sortu behar dela 234.2 artikulua bigarren tartekiaren eta Zigor Kodearen 234.1 eta 235. arteko erlazioa.

Horrenbestez, Zigor Kodearen 235.1.7 artikuluko modalitate hiperastundua aplikatu behar ez denean, delitu-jarraitutasunari lotutako hainbat ebasketa arinen kasuan, horien zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa bada —aurreko kondenak kontuan hartu gabe—, egitateak Zigor Kodearen 234.1 eta 74. artikuluetan jasotako ebasketa-delitu jarraitu gisa kalifikatuko dira, eta hori guztia kontuan hartu gabe delituaren erantzulea alde aurretik kondenatu duten ala ez izaera bereko hiru delitugatik Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian aurreikusitako baldintzetan. Eta hori guztia berrerortzearen astungarri hartzearen kalte gabe, Zigor Kodearen 22.8 artikulua hala eskatzen duenean.

Ikusi honako adibide hau:

A subjektuak, aurrez pentsatutako plan bat betez, deskuiduaz baliatuz osten ditu B subjektuaren erlojua (150 euroko salmenta-balioa), C subjektuaren erlojua (100 euroko salmenta-balioa) eta D subjektuaren erlojua (200 euroko salmenta-balioa) merkataritza-gune bereko hainbat establezimendutan, eta arau-hausteak Zigor Kodearen 74. artikuluko delitu-jarraitutasunari lotuta daude.

i) A subjektuak ez badu aurrekari penal konputagarririk, egitatea ebasketa-delitu jarraitu gisa kalifikatuko da, Zigor Kodearen 234.1 eta 74.2 artikuluek diotenari jarraikiz.

ii) A subjektuak delitu arinagatiko aurrekariak baditu, Zigor Kodearen II. liburuko XIII. titulu jasotako eta ebasketaren izaera bereko delitu arin baten edo biren erantzule gisa alde aurretik kondenatua izateagatik, horiek ez dira zenbatuko Zigor Kodearen 22.8 artikuluari jarraikiz, eta, beraz, Zigor Kodearen 234.1 eta 74.2 artikuluetako ebasketa-delitu jarraitutzat joko da egitatea.



iii) A subjektuak aurrekari penal konputagarriak baditu, Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluaren jasotako eta ebasketaren izaera bereko delitu ez hain astun edo astun baten edo biren erantzule gisa aldeztu aurretik kondenatua izateagatik, egitatea Zigor Kodearen 234.1 eta 74.2 artikuluetako ebasketa-delitu jarraitutzat joko da, eta Zigor Kodearen 22.8 artikuluko berrerortzearen inguruabar astungarria aplikatuko da.

iv) A subjektuak aurrekari penal konputagarriak baditu Zigor Kodearen 234.2 artikuluen bigarren tartekian jasotako baldintzetan aldeztu aurretik kondenatua izateagatik, egitatea Zigor Kodearen 234.1 eta 74.1 eta 2. artikuluetako ebasketa-delitu jarraitutzat kalifikatuko da, eta kasu horretan ez da aplikatuko Zigor Kodearen 22.8 artikuluko berrerortzearen inguruabar astungarria.

Aurrekoez bestelako kasu bat da, Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua aplikatu ez arren, arau-hauste jarraituen ondorioz lapurtutako zenbatekoaren baturak 400 euro gainditzen ez dituzenean, baina zenbateko hori gainditzen duenean subjektua aldeztu aurretik kondenarazi duten delituetan lapurtutako zenbatekoa gehitzean.

Kasu horretan, Zigor Kodearen 74.1 eta 2 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, egitateak Zigor Kodearen 234.2 artikuluen bigarren tartekian jasotako ebasketa-delitu jarraitutzat kalifikatuko dira, eta zigorra goiko erdian ezarri behar da. Kontuan izan behar da, aurreko kasuan ez bezala, eragindako kalte osoa ez dela izango 400 eurotik gorakoa, eta horrek eragotzi egiten duela Zigor Kodearen 234.1 artikuluko oinarritzko ebasketa-tasa balioestea; izan ere, aldeztu aurretik ostutako zenbatekoak ezin dira berriro kontuan hartu ondorio horretarako, *ne bis in idem* printzipioaren arabera.

Azken batean, Zigor Kodearen 235. artikuluan sar daitezkeen kasuak alde batera utzita, honako egitate-kasu hauek bereiz daitezke:



1) Aurrekari penalik ez duen ebasketa-delitu arin baten erantzulea.

Kalifikazio juridikoa: ebasketa-delitu arina, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekian jaso.

2) Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluaren jasotako izaera bereko delitu batengatik edo birengatik epai irmoan aldeztu aurretik kondenatutako ebasketa-delitu arin baten erantzulea, epaitutako eta epaitu gabeko arau-hausteen zenbateko metatua 400 eurokoa izan edo ez.

Kalifikazio juridikoa: ebasketa-delitu arina, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekian jaso. Berrerortzea baloratzeko orduan, Zigor Kodearen 66.2 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

3) Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluaren jasotako izaera bereko hiru delitu edo gehiagorengatik epai irmoan aldeztu aurretik kondenatutako ebasketa-delitu arin baten erantzulea, epaitu eta epaitu gabeko arau-hausteen zenbateko metatua 400 eurokoa edo txikiagoa denean.

Kalifikazio juridikoa: ebasketa-delitu arina, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekian jaso. Berrerortzea baloratzeko orduan, Zigor Kodearen 66.2 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

4) Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluaren jasotako izaera bereko hiru delitu edo gehiagorengatik epai irmoan aldeztu aurretik kondenatutako ebasketa-delitu arin baten erantzulea, epaitu eta epaitu gabeko arau-hausteen zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa denean.

Kalifikazio juridikoa: ebasketa-delitu ez hain astuna, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekian jaso.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

5) Zigor Kodearen 234.1 artikuluan jasotako ebasketa-delitu ez hain astun baten erantzulea, izaera bereko Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluan jasotako delitu batengatik edo gehiagorengatik alde aurretik kondenatua izan den ala ez kontuan hartu gabe.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.1 artikuluko ebasketa-delitu ez hain astuna. Zigor Kodearen 22.8 artikulua berrerortzearen inguruabar astungarria aplikatu ahal izango da, gainera, horretarako baldintzak betetzen direnean.

6) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea, delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatua 400 eurokoa edo txikiagoa bada eta hark ez badu zigor-aurrekaririk.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekian eta 74.1 eta 2 artikuluetan jasotako ebasketa-delitu jarraitu arina (zigorra goiko erdian ezarri behar da nahitaez).

7) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea, delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatua 400 eurokoa edo txikiagoa bada eta hura betearazpen-bidean kondenatua izan bada Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluan jasotako izaera bereko delitu batengatik edo birengatik, epaitutako eta epaitu gabeko arau-hausteen zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa izatea alde batera utzita.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekian eta 74.1 eta 2 artikuluetan jasotako ebasketa-delitu jarraitu arina (zigorra goiko erdian ezarri behar da nahitaez).

8) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea, delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatua 400 eurokoa edo txikiagoa bada, Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian aurreikusitako moduan betearazpen-bidean kondenatua izan dena, eta epaitutako eta epaitu gabeko arau-hausteen zenbateko metatua ez bada 400 eurotik gorakoa.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekian eta 74.1 eta 2 artikuluetan jasotako ebasketa-delitu jarraitu arina (zigorra goiko erdian ezarri behar da nahitaez).

9) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea, delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatuak ez badu gainditzen 400 euroko zenbatekoa, Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian aurreikusitako baldintzetan betearazpen-bidean kondenatua izan dena, eta epaitutako eta epaitu gabeko arau-hausteetako bat edo batzuk —baina ez guztiak— batuta ateratzen den zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa bada.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekian, 74.1 artikuluan eta 2 artikuluan jasotako ebasketa-delitu jarraitu ez hain astuna (zigorra goiko erdian ezarri behar da).

10) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatuak ez badu gainditzen 400 euroko zenbatekoa, Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian aurreikusitako baldintzetan betearazpen-bidean kondenatua izan bada, eta ateratzen den zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa bada, baina batera epaitu eta epaitu ez diren arau-hauste guztiak batuz gero bakarrik.

Kalifikazio juridikoa: ebasketa-delitu jarraitu ez hain astuna, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekian eta 74.2 artikuluan jasotakoa (zigorra ezartzea, eragindako kalte osoa kontuan hartuta).

11) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea, delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa bada eta ez badu izan betearazpen-kondena Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian aurreikusitako moduan.

ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.1 eta 74.2 artikuluetan aurreikusitako ebasketa-delitu jarraitu ez hain astuna. Zigor Kodearen 22.8 artikulua berrerortzearen inguruabar astungarria aplikatu ahal izango da, gainera, horretarako baldintzak betetzen direnean.

12) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea, delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa bada eta betearazpen-kondena izan badu Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian aurreikusitako moduan.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.1, 74.1 eta 2. artikuluetan jasotako ebasketa-delitu jarraitu ez hain astuna (zigorra goiko erdian ezarri behar da).

13) Zigor Kodearen 234.1 artikuluko ebasketa-delitu baten edo gehiagoren erantzulea, eta Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehenengo tartekiko ebasketa-delitu arin baten edo gehiagoren erantzulea, delitu horiek guztiak delitu-jarraitutasuneko erlazioan.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.1, 74.1 eta 2. artikuluetan jasotako ebasketa-delitu jarraitu ez hain astuna (zigorra goiko erdian ezarri behar da). Zigor Kodearen 22.8 artikulua berrerortzearen inguruabar astungarria aplikatu ahal izango da, gainera, horretarako baldintzak betetzen direnean.

14) Zigor Kodearen 234.1 artikuluan jasotako ebasketa-delitu baten edo gehiagoren erantzulea, bai eta ebasketa-delitu arin baten edo gehiagoren erantzulea ere, baldin eta Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian aurreikusitako moduan kondenatua izan bada, delitu-jarraitutasuneko erlazioan.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.1, 74.1 eta 2. artikuluetan jasotako ebasketa-delitu jarraitu ez hain astuna (zigorra goiko erdian ezarri behar da). Zigor Kodearen 22.8 artikulua berrerortzearen inguruabar astungarria aplikatu ahal izango da, gainera, horretarako baldintzak betetzen direnean.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

4.3 Egiletzari eta parte-hartzeari buruzko gogoetak

Praktikan, ez da ohikoa ebasketa-delitu arin bat bi pertsonak edo gehiagok egitea, baldin eta horietako batek bakarrik betetzen baditu Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian aurreikusitako baldintzak. Hau da, ebasketan parte hartu dutenetako bat edo batzuk baino ez badira alde aurretik epai irmo bidez kondenatu, ebasketaren izaera bereko ondarearen edo ordena sozioekonomikoaren aurkako hiru delitu gauzatzeagatik.

Halakoetan, zalantza sor liteke Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekiko azpitipo astundua betearazten laguntzen dutenek, delitu-modalitate horrek eskatzen dituen baldintza pertsonal zehatzak bete gabe, delitu horren partaide gisa erantzun behar ote duten, edo, aldiz, ebasketa-delitu arin baten egile edo partaide soil gisa hartu behar diren, manu horren lehen tartekiaren arabera zigortu beharrekotzat.

Erantzukizun kriminala aldatzen duten inguruabar espezifikoak edo berariazkoak, hau da, inguruabar orokor gisa jasota egoteaz gain legegileak astundutako edo pribilegiatutako azpitipoak eraikitze erabiltzen dituenak, berez delituaren benetako egitura-elementuak izan ohi dira. Hala eta guztiz ere, ados gaude horien komunikagarritasuna Zigor Kodearen 21. artikulutik 23. artikulura araututako aringarri eta astungarrien parametro berberak arautzen dutela.

Auzitegi Gorenaren martxoaren 7ko 318/2003 Epaiak xedatzen duenez, «65. artikulua, izaera generikoko inguruabar aringarri eta astungarri hitzez hitz aplikagarria dena, delitu bakoitzerako zigor-legeak ezartzen ditueni ere aplika dakieke (baita salbuesleei ere), goragoko printzipio zabalago bati men egiten baitio. Haren testuan, bi paragrafoetako bakoitzean bi inguruabar desberdin bereizten ditu: 1.



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Egitatearen egikaritze materialean edo egikaritze hori gauzatzeko erabili diren bideetan dautzanak, egitatearen berri izan duten guztiei jakinarazten zaizkienak (65.2 artikulua). 2. Izaera pertsonala dutenak, hala nola delitugilearen jarrera moralari buruzkoak edo ofendituarekin dituen harreman partikularrei buruzkoak, horiek dituenari bakarrik aplikatzen zaizkionak (65.1 artikulua)».

Irizpide hori, beste askoren artean, Auzitegi Gorenaren azaroaren 18ko 896/2021 Epaian, irailaren 23ko 468/2020 Epaian, uztailaren 23ko 384/2019 Epaian, urriaren 13ko 521/2015 Epaian, azaroaren 15eko 889/2012 Epaian, azaroaren 13ko 950/2007 Epaian eta martxoaren 22ko 367/2004 Epaian ere ageri da.

Horrenbestez, Zigor Kodearen 65.1 artikulua aplikatuz, berrerortzearen eta berrerortze anizkunaren inguruabar astungarriaren izaera erabat pertsonala kontuan hartuta, eta, horregatik, uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak sartutako ebasketa-delitu arinaren kualifikazioaren azpian dagoen oinarriaren arabera, baztertu egin behar da Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten egilekideei edo partaideei astuntzearen berri emateko aukera.

4.4 Araubide iragankorrekarekin loturiko gaiak

Zigor Kodearen 234.2 artikulua berriaren aplikazioan sor daitekeen beste gai batek zerikusia du ebasketa-delitu ez hain astun bihurtzea eragiten duten kondenak erreforma indarrean jarri aurrekoak izateko aukerarekin.

Aukera hori baztertu egin zuten probintzia-uzitegi batzuek, Zigor Kodearen 235.1.7 artikuluari dagokionez, uste baitzuten kontrako xedapen zehatzaile bat atzeraeraginez aplikatzea litzatekeela (Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikulua eta Zigor Kodearen 2.2 artikulua). Hori da Salamancako Probintzia Auzitegiaren (1. sekzioa) azaroaren 5eko 56/2019 Epaia kasua, hau adierazten duenean:



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

«Manu horren idazkeratik argi ulertzen da aurretik izaniko kondenak —gutxienez, titulu bereko hiru deliturengatik jasoak, eta betiere izaera berekoak badira— zigortipoaren elementu direla, eta, beraz, elementu horiek bereziki baloratu behar direla arauaren atzeraeraginezko aplikazioa kontuan hartzerakoan, Zigor Kodearen 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Espainiako Konstituzioaren 9.3 eta 25. artikuluekin loturik. Zigor-tipoko elementu objektiboa denez, eta alde batera utzita akusatua ebasketa-delitua egin zuenean zer egoeratan zegoen eta, bereziki, lehen delitu ez hain astunengatik kondenatua izan bazen, ez da nahikoa zigor-arau kaltegarria atzeraeraginez aplikatzea justifikatzeko, ebasketa-deliturako adierazitako zigorra nabarmen larriagotzea eragiten baitu horrek, eta ulertu behar da aurreko kondenak irmoak izan beharko liratekeela 1/2015 Lege Organikoak gauzatutako erreforma indarrean jarri ondoren» [ildo beretik, ikusi Madrilgo Probintzia Auzitegiaren (29. sekzioa) 547/2019 Epaia, urriaren 18koa].

Aurrekoa gorabehera, zehaztu behar da Auzitegi Gorenaren Bigarren Salak ebazitako gaia dela. Auzitegi Gorenaren 2020ko otsailaren 3ko 684/2019 Epaia honako hau adierazi zuen horri buruz: «Kondenatuak orain epaitutako egitateak egin zituenean zeuzkan aurrekari penalak egokiak dira Zigor Kodearen 250.1.7 artikulua modalitate astundua integratzeko, sala honen doktrinak esleitu dion konfigurazioarekin. Horietako bat ere ezin zen ezeztatu 2016ko urrian orain auzipetzen ari den maula-delitua egin zuenean [...]. Aurrekari horietako batzuek 1/2015 Lege Organikoa indarrean jarri aurreko gertakariak kondenatzeak ez du garrantzirik. Aplikagarri zitzaizen legediaren arabera epaitu zituzten haiek. Orain axola duena da egitate berriak egiten diren egunean indarrean zegoela orain aplikatzen den tipo astundua, eta, hortaz, betetzen dituela legezketasun-printzipioaren oinarriak».



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

Interpretazio hori probintzia-auzitegiek jada onartu zuten gehiengoz [ikusi Bartzelonako Probintzia Auzitegiaren (2. sekzioa) apirilaren 21eko 297/2016 Epaia; Valentziako Probintzia Auzitegiaren (2. sekzioa) abenduaren 22ko 814/2017 Epaia; Kantabriako Probintzia Auzitegiaren (3. sekzioa) maiatzaren 27ko 230/2020 Epaia; Bartzelonako Probintzia Auzitegiaren (21. sekzioa) ekainaren 26ko 104/2020 Epaia].

Doktrinak adierazi duen bezala, zigor-legeen atzeraeraginaren debekuak lotura zuzenekoa du segurtasun juridikoaren eta zigor-legezketasunaren printzipioekin. Aldekoak ez diren xedapen zehatzaileen atzeraeraginik ezaren helburua da legeak aplikatu ezin izatea aurreko lege baten indarraldian gauzatutako ekintzei. Azken batean, ekintzak epaitzeko orduan, egintzak zuzentzen dituzten arau penalak bete behar dira, arau-hauslearentzat onuragarrienak diren arauak atzeraeraginez aplikatzea izan ezik, logikoa denez.

Horrenbestez, ondorioztatu behar da Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tarteki berriaren aplikazioaren oinarria uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoa indarrean jarri aurreko kondenak izatea dela, eta horrek ez dakarrela, inola ere, legea atzeraeraginez aplikatzea. Kasu horietan, tipo berriaren aplikazioa egitateen unean indarrean dagoen manuairen idazkeraren arabera egindako subsuntzio-epaiketa baten ondorio izango da, eta horrek ez du inola ere ondorioz izango delitu-figura berria indarrean jarri aurretik izandako egoera juridikoekiko.

Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziarekin bat etorriz, ondoriozta daiteke Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian eta Zigor Kodearen 235.1.7 artikuluan aurreikusitako ebasketa-modalitate astunduek ez dutela bi aldiz zigortzen jokabide bera. Aitzitik, egitate berria astundu besterik ez dute egiten, baldin eta egitate hori berrerrortze anizkun gisa jotzen bada. Ondorioz,



Auzitegi Gorenak ukatu egin du Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua aplikatzeak *ne bis idem* printzipioa urratzea dakarrenik.

Horri dagokionez, hauxe dio Auzitegi Gorenaren ekainaren 28ko 481/2017 Epaiak: «Epaitutako kasuan bistakoa da delituaren subjektu aktibo bera ageri dela, bai eta kondena-oinarri bera ere; izan ere, auzian emandako epaian ebasketa-delitu arinengatik kondenatzen da, eta, hala, bat dator ondasun juridiko beraren tutoretza: biktimen jabetza-eskubidea. Alabaina, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudenziaren arabera, ezin da gauza bera esan gertakari berberengatiko kondena izateari buruz. Hain justu, berrerortzearen astungarriaren konstituzionaltasuna aztertzen duen Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 4ko 150/1991 Epaian argudiatzen da ezen, konstituzio-arauaren interprete gorenak argudiatzen duela “*non bis in idem* printzipioaren esanahitik ondorioztatzen dela Zigor Kodearen 10.15 artikulua berrerortzearen astungarriak ez duela urratzen konstituzio-printzipio hori. Hain zuzen ere, berrerortzearen astungarria hautemateak, hasieran azaldu zen bezala, hura kontuan hartzeko betebeharra dakar —beste edozein astungarri aintzat hartu beharra bezala—, zigorra handitzeko Zigor Kodearen 58. artikuluan agintzen diren kasuetan eta Zigor Kodeko arauen arabera, eta, zehazkiago, delituarentzat aurreikusitako zigorraren aplikazio-maila zehazteko eta, gradu bakoitzaren mugen barruan, zigorraren hedadura diskrezioz finkatzeko. Argi dago, horrenbestez, berrerortzea astungarritzat jotzearekin batera, delituaren muinari eragiten diola edo zigorraren aldaketari soilik eragiten diola ulertuta ere, ez direla berriro zigortzen aurreko egitatea edo aurreko egitateak, eta, gainera, betearazpen-bidean epaituta daudela —Zigor Kodearen 10.15 artikulua— eta gauza epaituaren ondorioak dituztela (ondore horiek, beraz, ez direla aldatzen), baizik eta ondorengo egitatea bakarrik eta eskusiboki”. [...] Egia esan, doktrina hori zalantzan jarri dute erabat doktrina-sektore garrantzitsuek, uste baitute ez dela erraza ohartaraztea aurreko kondena juridikoetako egitateak “berriro ez zigortzea”, baieztatuz “kontuan hartu besterik ez direla egin”. Hala ere, egia eta eztabaidaezina da Auzitegiaren jurisprudenzia-doktrina



sendotu egin da ondorengo aurrekarietan, eta, horrenbestez, baztertu egin da berrerortzea aplikatzen duen epaian aurreko epaiak kontuan hartzea *non bis in idem* printzipioa urratzea dela defendatzen duen tesia. Hori horrela, berrerortzearen astungarria aplikatze hutsak ez dakar berez *bis in idem* batean erortzea. Horrenbestez, hori baldin bazen auzialdi-azitegiak Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua ez aplikatzeko arrazoa —gai hori ere ez da geratu argituta—, ezin da nahikotzat jo manu hori ez aplikatzeko eta Zigor Kodearen 234.1 artikulua aplikatzera jotzeko, subsuntzio hori ere ez baita azaltzen errekurritutako epaian. [...] Beraz, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, legegileak benetan egiten duena ez da egintza beragatik bi aldiz zigortzea, baizik eta astundu egiten du zigorra epaitzen ari den ebasketa berriagatik, eta tipo hiperastundu bat ezartzera jotzen du, akusatua aurrekari penaletara soilik jotz. Hau da, legegileak laugarren ebasketa-delituarekin jarduten du tipoan, dagokion egitatearekin, eta, tasa hiperastundua aplikatzeko, kontuan hartzen du titulu beraren barruko beste hainbeste ebasketa-delituri buruzko aurretiazko hiru kondena».

Ildo bertsuan, Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 4ko 86/2017 Epaiak hauxe adierazten du: «Aitortu behar da Auzitegi honek onartu duela, hain zuzen ere, berrerortzearen astungarriaren konstituzionaltasuna, berariaz adieraziz ez duela urratzen *non bis in idem* printzipioa. Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 4ko 188/2005 Epaiaren 4. oinarri juridikoan esaten genuenez, adierazpen hori egin dugu astungarri horren bidez legegileak subjektu beraren ondorengo legez kontrako jokabide bat modu zorrotzagoan zigortu nahi zuenean, eta horrek ez du esan nahi aurreko egitateak berriro zigortzea, baizik eta legegile penalak bigarren deliturako edo hurrengoetarako edo, kasuak hala eskatzen badu, ondorengo arau-hauste administratiboetarako soilik kontuan hartzea. Ondorioz, ez dago egitateen identitaterik; aitzitik, aurreko egitatei dagokien administrazio-zehapena edo zehapen penala ezarri zaie, eta ondorengo egitate ez-zilegia modu zorrotzagoan zigortu da aipatutako astungarria aplikatzeagatik» (ikus Konstituzio Auzitegiaren



189/2013 Epaia, azaroaren 7koa; 152/1992 Epaia, urriaren 19koa; eta 150/1991 Epaia, uztailaren 4koa).

Antzeko iritzia ematen du 2006ko martxoaren 29ko Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Sala Handiak (gaia: Achour vs Frantzia):

51. Hala ere, Justizia Auzitegiak dio demandatzailearen 1984ko urriaren 16ko hasierako kondena ez zela ezabatu, eta agertzen jarraitzen zuela aurrekari penaletan. Hortaz, auzitegi nazionalak eskubidea zuten berrerortzearen lehen elementu gisa kontuan hartzeko, eta, gainera, ulertzen zen kondena eta gauza epaitua izatea ez zirela aldatu eta, ildo beretik, ez ziela eragin legeria berriaren aldarrikapenak. Horri dagokionez, Justizia Auzitegiak ezin du onartu demandatzailearen alegazioa (ikusiko goiko 40. apartatua), zeinak adierazten baitu berrerortzearen ondorioetarako dagokion aldia amaitzeak, lehen arau-haustean aurreikusi bezala, eskubidea eman ziola bere lehen arau-haustea kontuan ez hartzeko (droit à l'oubli), eta aplikatu beharreko legerian ez zegoela eskubide horri buruzko xedapenik...

52. Justizia Auzitegiak ikusten du, gainera, badela Kasazio Auzitegiaren jurisprudentzia finkatu bat, zeinaren bidez eztabaidatzen baita berrerortzearen bi osagaien artean egon daitekeen denbora luzatzen duen lege berri bat, indarrean jarri ondotik, aplika ote dakioken ala ez ostean eginiko bigarren delitu bati. Kasazio Auzitegiko Zigor Arloko Salak —eta demandatzaileak ez zuen eztabaidatu— jarrera argia eta koherentea hartu du XIX. mendearen amaieratik; hau da, lege batek berrerortzeari buruzko arau berriak txertatzen dituenean, arau horiek berehala aplikatzeko nahikoa da lege horrek indarra hartu ondotik egitea berrerortzearen bigarren osagaia den delitua. Jurisprudentzia horrek argi eta garbi ahalbidetzen zion demandatzaileari jokabidea arautzea (ikusiko besteak beste, honako epai hauek: Kokkinakis, lehen aipatua, 19. or., 40. atala; Cantoni, lehen aipatua, 1628.-29. or., 34. atala; eta Streletz, Kessler eta Krentz vs Germany [GC], 34044/96, 35532/97 eta 44801/98 zenbakiak, 82. atala, ECHR 2001-II).



Ne bis idem printzipioaren urraketa arbuiatzeko argudioek azaltzen dute, *mutatis mutandis*, zergatik den onargarria ebasketa-delitu arina delitu ez hain astun

bihurtzeko zigorrak uztailaren 28ko 9/2021 Lege Organikoa indarrean jarri aurrekoak izatea, eta horrek ez du inola ere ekarriko aldekoak ez diren xedapenen zehatzaileen atzeraeraginik ezaren printzipioa urratzea (Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikulua eta Zigor Kodearen 2.2 artikulua).

Konstituzio Auzitegiaren apirilaren 10eko 42/1986 eta urriaren 22ko 216/2015 Epaiak diotenez, «9.3 artikuluan debekatzen dena atzeraeragina da, hau da, lege berriak aurreko egoeretan izandako ondorio juridikoetan duen eragina, halako moldez non eskubideetan duen eragina, etorkizunera begira duen proiektioari dagokionez, ez baita atzeraeraginik ezaren eremu hertsia». Ideia hori ageri da Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 5eko 234/2007, martxoaren 5eko 49/2015 eta maiatzaren 10eko 1/2018 Epaietan ere.

4.5 Jarduteko irizpideak

Aurreko epigrafeetan azaldutako argudioak ikusita, komenigarritzat jotzen da Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian araututako azpitipo astunduaren interpretazioan eta aplikazioan Fiskaltzaren jardura-batasuna bermatuko duten jarraibideak eskaintzea. Horretarako, egitatezko hainbat kasu bereizi behar dira:

A) Organo judizialak ebasketa-delitu arinari buruzko judizioa hastea erabakitzen duenean, fiskalek, hala erabakitzen duen ebazpenaren jakinarazpena jaso ondoren, azkar egiaztatuko dute auzipetuaren orri historiko-penala behar bezala jasota dagoela prozesuan, eta, jarraian, Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiaren azpitipo astunduaren baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatuko dute.



A.1.) Ondorioztatzen bada aplikagarria dela Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiaren modalitate astundua edo Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua modalitate hiperastundua, eta ez dela zuzena organo judizialak

egindako kalifikazio juridikoa, fiskalek ebazpen horren aurkako errekurtsuok jarriko dituzte, eta aurretiazko eginbideak hasteko autoa ematea eskatuko dute, edo, bidezkoa bada, delitu jakin batzuk azkar epaitzeko prozedurarena.

Jarduketa bera egingo da egitateak Zigor Kodearen 234.1 eta 74.1 eta 2. artikuluetako ebasketa-delitu jarraitutzat jotzen badira, zirkular honen 4.2 epigrafean adierazitakoaren arabera.

A.2.) Baldin eta orri historiko-penalean ezin bada zehaztu Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekia edo Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua modalitate hiperastundua aplikatu behar den, eta beharrezkoa bada ebazpen judizialen lekukotza biltzea beste organo judizial batzuen aurrean, fiskalek dagozkion errekurtsuok jarriko dituzte, ondoriorik gabe gera dadin delitu arinen gaineko epaiketarako prozedura hastea erabakitzen duen ebazpena, eta, horren orde, aurretiazko eginbideak hasteko autoa eman dadin, edo, salbuespen gisa, delitu jakin batzuk azkar epaitzeko prozedurarena, lekukotza horiek jasotzeko.

Lekukotza hori, zirkular honen 3. epigrafean zehazten den bezala, bildu egin beharko da, batetik, jada epaia jaso duten delituengatik metatutako zenbatekoak —orain epaitzen denarekin batera— 400 euro gainditzen dituen zehazteko, eta, bestetik, delitu arina astuntasun txikiagoko bihurtzea justifikatzen duten auzipetuaren aurrekari penalek indarrean jarraitzen duten egiaztatzeko, Zigor Kodearen 136. eta 137. artikuluetan xedatutakoaren arabera.



A.3.) Egiaztatzen bada egitateak ezin direla sartu Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiko azpitipo astunduan, fiskalek delitu arinen gaineko epaiketa hasteko autoarekin ados daudela adieraziko dute, dagokion ikusiaren bidez.

A.4.) Auzipetuaren orri historiko-penala ez badago jarduketetan sartuta, fiskalek

bilatu egingo dute, bai eta prozeduran sartzeko eskatu ere. Aztertu ondoren, arestian aipatutako hiru formen arabera jokatu dute.

B) Prozedura hastea erabaki aurretik organo judizialak Fiskaltzari iritzia eskatzen dionean, fiskalek ikertutako pertsonaren orri historiko-penala aztertuko dute Fiskaltzaren aplikazio informatikoen bidez, beharrezkoa bada.

B.1.) Berrerortze anizkunagatik astundutako edo hiperastundutako modalitatea aplikatu behar dela ondorioztatzen bada, fiskalek aurretiazko eginbideen prozedura hastea eskatuko dute, edo, kasuak hala eskatzen badu, delitu jakin batzuk azkar epaitzeko prozedura abiaraztea.

Jarduketa bera gauzatuko da egitateak Zigor Kodearen 74.1 eta 2 eta 234,1. artikuluetako ebasketa-delitu jarraitutzat jo badaitezke, zirkular honen 4.2 epigrafean adierazitakoaren arabera.

B.2.) Baldin eta orri historiko-penalak ezin badu zehaztu Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekia edo Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua modalitate hiperastundua aplikatu behar den, beharrezkoa da ebazpen judizialen lekukotza biltzea beste organo judizial batzuetan, eta fiskalek aurretiazko eginbideak hastea eskatuko dute, eta interesgarria izango da, orobat, organo judizialak lekukotza horiek jasotzea.



B.3) Egiaztatzen bada zantzuen arabera egitateak ezin direla sartu Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiaren azpitipo astunduan edo Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua modalitate hiperastunduan, eta argi geratzen bada ebasketa-delitu arina direla, fiskalek delitu arinen gaineko epaiketarako prozedura egokia hasteko eskatuko dute.

C) Aurretiatzko eginbideak hasi ondoren edo Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiaren ebasketa-azpitipo astunduagatik edo Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua modalitate hiperastunduagatik epaiketa azkarra egiteko prozedura hasi ondoren, egitateak ebasketa-delitu arina baino ez direla egiaztatzen bada, fiskalek delitu arinen gaineko epaiketa bihurtzea sustatuko dute, ahal bezain laster.

Bestalde, zehaztu behar da aurreko gogoetak ez direla oztopo adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren 12ko 5/2000 Lege Organikoaren aplikazio-eremuaren barruko kasuetan, fiskalek, kasuak hala eskatzen duenean, jarduketak artxibatzea erabaki edo eskatzeko egokitasun-irizpideei jarraikiz, betiere Adingabeen Erantzukizun Penalaren Lege Organikoaren 18., 19. eta 27.4 artikuluetan eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2007 eta 9/2011 Zirkularretan xedatutakoaren arabera.



5. Ondorioak

Lehenengoa. Uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak nabarmen aldatu du ebasketa-delitua, eta, horretarako, beste azpitipo astundu bat sartu du, zeinaren arabera delitu ez hain astunen kategoriara igo baita ebasketa arinak gauzatzea, baldin eta inguruabar jakin batzuk gertatzen badira: i) delitua gauzatzeko unean, gutxienez hiru deliturengatik betearazpen-zigorra jaso izana, delitu astunak, ez hain astunak edo arinak diren kontuan hartu gabe; ii) subjektua aldeztu aurretik kondenarazi duen delituak Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluaren sartuta egotea

eta ebasketaren izaera berekoak izatea; iii) gauzatutako ebasketa-delitu arinaren eta aurreko kondenetatik eratorrien artean metatutako zenbatekoa 400 eurotik gorakoa izatea; iv) delitu ez hain astun bihurtzea ahalbidetzen duen metaketa juridikoa oinarritzen duten kondenen ondoriozko aurrekari penalak ezereztu ez izana edo ezereztu beharrik ez izatea ordenamendu juridikoaren arabera.

Bigarrena. Aldez aurreko kondenaren bat Zigor Kodearen 234.1 artikuluko oinarrizko ebasketa-tipoagatik denean, guztizko zenbatekoa 400 eurotik gorakoa dela egiaztatutzat jotzeko nahikoa izango da orri historiko-penala behar bezala txertatuta agertzea prozedura penalean.

Aurretiazko kondenak ebasketa-delitu arinengatik eta/edo Zigor Kodearen 235. artikuluko ebasketa-modalitate hiperastunduetako batengatik badira, eta, hala, orri historiko-penalak ez badu aukerarik ematen delituengatik metatutako zenbatekoa 400 eurotik gorakoa den jakiteko, beharrezkoa izango da kondena-epai bakoitzaren lekukotza osoa biltzea.



Hirugarrena. Akusazio-idazkiak zehatz-mehatz jaso beharko ditu Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekiko azpitipo astundua aplikatzearen oinarri diren aurrekari penalak, eta, zehazki, honako hauek: i) kondena-epaien data; ii) kondenak eragin zituzten delituak; iii) ezarritako zigorrak; v) behin betiko iraungipen-datak; vi) kasu bakoitzean lapurtutako zenbatekoa, frogatutako egitateen kontakizunetik ondorioztatzen denaren arabera.

Orri historiko-penalaren edukitik modu objektiboan ondorioztatzen bada kondena nahitaez 400 eurotik gorakoa izan behar zela, nahikoa izango da horrela zehaztea akusazio-idazkiaren lehen ondorioan, eta ez da izango beharrezkoa zenbatekoa zehaztea.

Laugarrena. 9/2022 Lege Organikoak egindako ebasketa-delituaren erreformak Zigor Kodearen 234.2 artikulua aldatzen du, baina ez du ukitzen Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua konfiguratzea.

Uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak egindako erreformaren ondoren, ekintza batzuk aldi berean sar daitezke Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian eta Zigor Kodearen 235.1.7 artikuluan. Kasu horietan, bi delituen arteko arau-aldiberekotasuna ikusi beharko da, eta Zigor Kodearen 235.1.7 artikuluko modalitate hiperastunduaren alde ebatziko da, Zigor Kodearen 8.2 artikuluari jarraikiz (subsidiariorotasun-printzipioa). Fiskalek espresuki jasoko dute inguruabar hori akusazio-idazkietan.

Bosgarrena. Zigor Kodearen 235. artikulua aplikatzekoa den kasuak alde batera utzita, kasu hauek bereiz daitezke:

1) Aurrekari penalik ez duen ebasketa-delitu arin baten erantzulea.

Kalifikazio juridikoa: ebasketa-delitu arina, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekian jaso.

49

fge.secretaria.fiscalgeneral@fiscal.es

91 3352143
Fortuny 4,
28010 – Madril



ESTATUKO
FISKALTZA
NAGUSIA

2) Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluan jasotako izaera bereko delitu batengatik edo birengatik epai irmoan alde aurretik kondenatutako ebasketa-delitu arin baten erantzulea, epaitutako eta epaitu gabeko arau-hausteen zenbateko metatua 400 eurokoa izan edo ez.

Kalifikazio juridikoa: ebasketa-delitu arina, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekian jaso. Berrerortzea baloratzeko orduan, Zigor Kodearen 66.2 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

3) Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluan jasotako izaera bereko hiru delitu edo gehiagorengatik epai irmoan alde aurretik kondenatutako ebasketa-delitu arin

baten erantzulea, epaitu eta epaitu gabeko arau-hausteen zenbateko metatua 400 eurokoa edo txikiagoa denean.

Kalifikazio juridikoa: ebasketa-delitu arina, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tarteian jasoa. Berrerortzea baloratzeko orduan, Zigor Kodearen 66.2 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

4) Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluari jasotako izaera bereko hiru delitu edo gehiagorengatik epai irmoan alde aurretik kondenatutako ebasketa-delitu arin baten erantzulea, epaitu eta epaitu gabeko arau-hausteen zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa denean.

Kalifikazio juridikoa: ebasketa-delitu ez hain astuna, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tarteian jasoa.

5) Zigor Kodearen 234.1 artikuluan jasotako ebasketa-delitu ez hain astun baten erantzulea, izaera bereko Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluari jasotako delitu batengatik edo gehiagorengatik alde aurretik kondenatua izan den ala ez kontuan hartu gabe.



Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.1 artikuluko ebasketa-delitu ez hain astuna. Zigor Kodearen 22.8 artikulua berrerortzearen inguruabar astungarria aplikatu ahal izango da, gainera, horretarako baldintzak betetzen direnean.

6) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea, delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatua 400 eurokoa edo txikiagoa bada eta hark ez badu zigor-aurrekaririk.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekian eta 74.1 eta 2 artikuluetan jasotako ebasketa-delitu jarraitu arina (zigorra goiko erdian ezarri behar da nahitaez).

7) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea, delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatua 400 eurokoa edo txikiagoa bada eta hura betearazpen-bidean kondenatua izan bada Zigor Kodearen II. liburuko XIII. tituluan jasotako izaera bereko delitu baten edo biren arduradun izateagatik, epaitutako eta epaitu gabeko arau-hausteen zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa izatea alde batera utzita.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekian eta 74.1 eta 2 artikuluetan jasotako ebasketa-delitu jarraitu arina (zigorra goiko erdian ezarri behar da nahitaez).

8) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea, delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatua 400 eurokoa edo txikiagoa bada, Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian aurreikusitako moduan betearazpen-bidean kondenatua izan dena, eta epaitutako eta epaitu gabeko arau-hausteen zenbateko metatua ez bada 400 eurotik gorakoa.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehen tartekian eta 74.1 eta 2 artikuluetan jasotako ebasketa-delitu jarraitu arina (zigorra goiko erdian ezarri behar da nahitaez).



9) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea, delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatuak ez badu gainditzen 400 euroko zenbatekoa, Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian aurreikusitako baldintzetan betearazpen-bidean kondenatua izan dena, eta epaitutako eta epaitu gabeko arau-hausteetako bat edo batzuk —baina ez guztiak— batuta ateratzen den zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa bada.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekian, 74.1 artikuluan eta 2 artikuluan jasotako ebasketa-delitu jarraitu ez hain astuna (zigorra goiko erdian ezarri behar da).

10) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatuak ez badu gainditzen 400 euroko zenbatekoa, Zigor Kodearen 234.2 artikuluen bigarren tartekian aurreikusitako baldintzetan betearazpen-bidean kondenatua izan bada, eta ateratzen den zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa bada, baina batera epaitu eta epaitu ez diren arau-hauste guztiak batuz gero bakarrik.

Kalifikazio juridikoa: ebasketa-delitu jarraitu ez hain astuna, Zigor Kodearen 234.2 artikuluko bigarren tartekian eta 74.2 artikuluan jasotakoa (zigorra ezartzea, eragindako kalte osoa kontuan hartuta).

11) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea, delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa bada eta ez badu izan betearazpen-kondena Zigor Kodearen 234.2 artikuluen bigarren tartekian aurreikusitako moduan.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.1 eta 74.2 artikuluetan aurreikusitako ebasketa-delitu jarraitu ez hain astuna. Zigor Kodearen 22.8 artikulua berrerortzearen inguruabar astungarria aplikatu ahal izango da, gainera, horretarako baldintzak betetzen direnean.



12) Ebasketa-delitu arin batzuen erantzulea, delitu-jarraitutasunari dagokionez, baldin eta lapurtutakoaren zenbateko metatua 400 eurotik gorakoa bada eta betearazpen-kondena izan bada Zigor Kodearen 234.2 artikuluen bigarren tartekian aurreikusitako moduan.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.1, 74.1 eta 2. artikuluetan jasotako

ebasketa-delitu jarraitu ez hain astuna (zigorra goiko erdian ezarri behar da).

13) Zigor Kodearen 234.1 artikuluko ebasketa-delitu baten edo gehiagoren erantzulea, eta Zigor Kodearen 234.2 artikuluko lehenengo tartekiko ebasketa-delitu arin baten edo gehiagoren erantzulea, delitu horiek guztiak delitu-jarraitutasunaren erlazioan.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.1, 74.1 eta 2. artikuluetan jasotako ebasketa-delitu jarraitu ez hain astuna (zigorra goiko erdian ezarri behar da). Zigor Kodearen 22.8 artikulua berrerortzearen inguruabar astungarria aplikatu ahal izango da, gainera, horretarako baldintzak betetzen direnean.

14) Zigor Kodearen 234.1 artikuluan jasotako ebasketa-delitu baten edo gehiagoren erantzulea, bai eta ebasketa-delitu arin baten edo gehiagoren erantzulea ere, baldin eta Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian aurreikusitako moduan kondenatua izan bada, delitu-jarraitutasunaren erlazioan.

Kalifikazio juridikoa: Zigor Kodearen 234.1, 74.1 eta 2. artikuluetan jasotako ebasketa-delitu jarraitu ez hain astuna (zigorra goiko erdian ezarri behar da). Zigor Kodearen 22.8 artikulua berrerortzearen inguruabar astungarria aplikatu ahal izango da, gainera, horretarako baldintzak betetzen direnean.



Seigarrena. Zigor Kodearen 65.1 artikulua aplikatuz, berrerortzearen inguruabar astungarriaren izaera erabat pertsonala kontuan hartuta, eta uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoak sartutako ebasketa-delitu arinaren kualifikazioaren azpian dagoen oinarriaren arabera, baztertu egin behar da Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekian eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten

egilekideei edo partaideei astuntzearen berri emateko aukera.

Zazpigarrena. Organo judizialak ebasketa-delitu arinari buruzko judizioa hastea erabakitzen duenean, fiskalek, hala erabakitzen duen ebazpena jakinarazi ondoren, azkar egiaztatuko dute auzipetuaren orri historiko-penala behar bezala txertatuta ote dagoen prozesuan, eta, jarraian, Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekia zigortutako azpitipo astunduaren edo, kasuaren arabera, Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua modalitate hiperastunduaren baldintzak betetzen diren egiaztatuko dute.

i) Baldin eta ondorioztatzen bada modalitate astundua edo hiperastundua aplikagarria dela, eta organo judizialak egindako kalifikazio juridikoa ez dela zuzena, fiskalek dagozkion errekursoak jarriko dituzte ebazpen hura ondoriorik gabe gera dadin, eta, horren ordez, aurretiazko eginbideak hasteko autoa eman dadin, edota, kasuak hala eskatzen badu, delitu jakin batzuk azkar epaitzeko prozedura hasteko autoa eman dadin.

Jarduketa bera egin ahal izango da egitateak etengabeko ebasketa-delitu direnean, Zigor Kodearen 234.1 eta 74.1 eta 2 artikuluei jarraikiz.

ii) Orri historiko-penalak ezin badu zehaztu Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekia edo Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua modalitate hiperastundua aplikatu behar den, eta, horretarako, beharrezkoa bada ebazpen judizialen lekukotzak biltzea beste organo judizial batzuetan, fiskalek dagozkien errekursoak jarriko dituzte



ondoriorik gabe gera dadin delitu arinen epaiketarako prozedura hastea erabakitzen duen ebazpena, eta, horren ordez, aurretiazko eginbideak hasteko autoa eman dadin, edo, salbuespen gisa, delitu jakin batzuk azkar epaitzeko prozedura, betiere lekukotza horiek eskatzea erabakirik.

Lekukotza hori bildu beharko da, batetik, epaitzen diren delituengatik orain epaitzen denarekin batera metatutako zenbatekoa 400 eurotik gorakoa den zehazteko, eta, bestetik, delitu arina astuntasun txikiagoko bihurtzea justifikatzen duten ikertutako pertsonaren aurrekari penalek indarrean jarraitzen duten egiaztatzeke, Zigor Kodearen 136. eta 137. artikuluei jarraikiz.

iii) Egitateak Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiaren azpitipo astunduan edo Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua modalitate hiperastunduan txertatzerik ez dagoela egiaztatuz gero, fiskalek adieraziko dute ados daudela delitu arinei buruzko judizioa hasteko autoarekin, dagokion oniritziaren bidez.

iv) Ikertutako pertsonaren orri historiko-penala ez badago sartuta jarduketetan, fiskalek eskatu eta prozeduran txertatzeko eskatuko dute. Aztertu ondoren, arestian aipatutako hiru moduetakoren batetik etorriko dira.

Zortzigarrena. Organo judizialak Fiskaltzaren iritzia eskatzen duenean prozedura penala hastea erabaki aurretik, fiskalek ikertutako pertsonaren orri historiko-penala aztertuko dute, eta, beharrezkoa bada, Fiskaltzaren aplikazio informatikoen bidez egingo dute hori.

i) Ondorioztatzen bada aplikagarria dela berrerortze anizkunagatik astunduriko modalitatea,



dela Zigor Kodearen 234.2 artikulua bigarren tartekiaren arabera, dela Zigor Kodearen 235.1.7 artikulua arabera, fiskalek aurretiazko eginbideen edo, bidezkoa denean, delitu jakin batzuk azkar epaitzeko prozeduraren prozedura hastea eskatuko dute.

Jarduketa bera egin ahal izango da egitateak Zigor Kodearen 234.1 eta 74.1 eta 2. artikuluetako ebasketa-delitu jarraitutzat jotzen badira.

ii) Baldin eta orri historiko-penalak ezin badu zehaztu Zigor Kodearen 234.2 artikularen bigarren tartekia edo Zigor Kodearen 235.1.7 artikularen modalitate hiperastundua aplikatu behar den, eta, horretarako, beharrezkoa bada ebazpen judizialen lekukotzak biltzea beste organo judizial batzuen aurrean, fiskalek aurretiazko eginbideak hasteko eskatuko dute, eta, era berean, lekukotza horiek organo judizialak eskatu beharko ditu.

iii) Egiaztatzen bada egitateak, zantzuen arabera, ez direla Zigor Kodearen 234.2 artikularen bigarren tartekiaren azpitipo astunduan edo Zigor Kodearen 235.1.7 artikularen modalitate hiperastunduan sartzeko modukoak, eta argi badago ebasketa-delitu arina direla, fiskalek delitu arinen gaineko epaiketarako prozedura egokia hasteko eskatuko dute.


Bederatzigarrena. Zigor Kodearen 234.2 artikularen bigarren tartekiaren ebasketa-azpitipo astunduagatik edo Zigor Kodearen 235.1.7 artikularen modalitate hiperastunduagatik aurretiazko eginbideak edo epaiketa azkarreko eginbideak hasi ondoren egiaztatzen bada egitateak ebasketa-delitu arin bat baino ez direla, fiskalek delitu arinen gaineko epaiketa bihurtzea sustatuko dute, ahalik eta bizkorren.



Hamargarrena. Adingabeen erantzukizun penalari dagokionez, eta aurrekariak ezerezteari dagokionez, Zigor Kodearen 137. artikuluko araei eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 1/2007 Zirkularrean (2006ko adingabeen legeria penala erreformatu ondorengo interpretazio-irizpideei buruzkoa) emandako jarraibideei men egingo diete fiskalek.

Azaldutako guztiagatik, uztailaren 28ko 9/2022 Lege Organikoaren arabera egindako erreformaren ondoren ebasketa-delitua interpretatzeko irizpide uniformeak hartzeko, fiskalek zirkular honetako aginduak beteko dituzte aurrerantzean.

Madril, 2022ko abenduaren 12a,
ESTATUKO FISKAL NAGUSIA

A handwritten signature in black ink, consisting of a long horizontal line with a stylized, cursive flourish above it.

Sinadura: Álvaro García Ortiz